



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abenduaren 15a

141. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Akats zuzenketa (48. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (49. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Mahaiaren 2019ko abenduaren 16ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea. Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko kontingentzia plana dela-eta Parlamentuko Mahaiak hartutako erabaki indarduna luzatzea (54. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko azaroaren 26an egindako Osoko Bilkuran, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen**

#### ZIOEN AZALPENA

Rio de Janeiron 1992an sinatu zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Adierazpenak ezartzen duenez, gizakiak garapen jasangarriarekin zerikusia duten kezken erdigunean daude, eta eskubidea dute naturarekin bat datorren bizitza osasuntsua eta produktiboa izateko.

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak ezartzen du ingurumenaren arloko politikak lagundu behar duela helburu hauek lortzen: ingurumenaren zainketa, babesa eta kalitatearen hobekuntza; pertsonen osasunaren babesa; natura-baliabideen erabilera zentzuzkoa eta arrazoizkoa; eta nazioartean neurriak sustatzea, mundu osoan nahiz eskualdez eskualde dauden ingurumen arazoei aurre egiteko. Ezartzen du, halaber, ingurumenaren arloan gauzatuko duen politikaren xedea izanen dela babes maila altua lortzea, aintzat hartuz betiere Erkidegoko eskualdeetan mota askotako egoerak daudela, eta printzipio hauetan oinarrituta: zuhurtasunarena eta prebentzio ekintzarena; ingurumenak jasandako erasoak ahal dela sorburuan bertan zuzentzearena; eta, azkenik, kutsatzen duenak ordaindu behar duela dioena.

Pertsonaren garapenerako ingurumen egokiaz gozatzeko eskubidea, bai eta ingurumena zaintzeko betebeharra ere, dira Espainiako Konstitu-

zioan jasotzen diren politika sozial eta ekonomikoaren gidaritzarako printzipioetako batzuk. Bertako 45. artikulua botere publikoei agintzen die zain dezaten natura-baliabide guztien erabilera arrazoizkoa izatea, bizi-kalitatea babesteko eta hobetzeko eta ingurumena defendatu eta lehengoratzeko, ezinbestekoa den elkartasun kolektiboaren laguntzaz.

Natura babesteko eta pertsonen osasuna eta bizi kalitatea zaintzeko helburuarekin, Europar Batasunak arau ugari onetsi ditu, zeinetan hainbat tresna ezartzen baitira botere publikoek esku har dezaten bai ingurumenari eragiten dioten instalazio eta jardueren gainean, bai ingurumenean ondorio muntadunak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen gainean.

Erreferentziarako arau-esparru indarduna osatzen dute, batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko azaroaren 24ko 2010/75/EB Zuzentarauak, industria-isurketei buruzkoak (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak), eta, bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 13ko 2011/92/EB Zuzentarauak, proiektu publiko eta pribatu zehatz batzuek ingurumenaren gainean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzkoak.

Ingurumen-babesaren alorreko oinarritzko eskumena baliaturik, bi zuzentarau horien transposizioa egin da Espainiako ordenamendu juridikora; gehienbat, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuei buruzko Legearen testu bateginean, zeina abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean.

Baliaturik Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 57.c) artikulua Nafarroako Foru Komunitateari aitortzen dizkion eskumenak, ingurumen eta ekologia arloetan legegintzako garapena eta betearazpena egitekoak eta

babes-arau osagarriak ezartzeko helburuarekin, martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea onetsi zen, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzkoa, xede zeukana araubide bat ezartzea Nafarroako administrazio publikoek dituzten esku-hartze administratiborako modu desberdinetarako, jomugatzat harturik prebenitu, murriztu eta kontrolatzea zenbait jarduera publiko zein pribatuk dakarten kutsadura eta atmosferaren, uren, lurra- ren eta biodibertsitatearen gaineko ingurumen- inpaktua, halatan ingurumenaren osotasunaren babes posible handiena erdietsiko delakoan.

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeak modu integratua arautu ditu ingurumen-eragina izan leza- keten jardueren abiarazpenean eta fun- tzionamenduan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoek esku hartzeko prozedu- rak.

Horretarako, formula desberdinak erabili ditu; besteak beste, ingurumen arloko eskumena duen organoak emandako zuzeneko baimena, beste toki organo edo ente eskudun batzuek eman beharreko baimenaren aurreko txostena, eta ingu- rumen-inpaktuaren ebaluazioa.

Alabaina, azken urte hauetan arau horrek izan duen aplikazioak erakutsi du egungo egoeran aldaketak eta egokitzapenak txertatu beharra dagoela.

Bestalde, onetsitako Europar Batasuneko zuzentarau eta Estatuko lege berriek behartzen dute haietako berritasunak jasoko dituen arau berri batekin ordeztara martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea, Ingurumena Babesteko Esku-har- tzeari buruzkoa.

Alde horretatik, garrantzitsuak dira arlo haue- tan egin diren aldaketak: ingurumen-baimen inte- gratua behar duten jarduerena, ingurumen ebalua- zioarena, sinplifikazio administratiboarena eta, azkenik, Administrazioaren esku-hartzea jarduera ekonomikoek ingurumenean izan dezaketen uki- pen errealaren arabera hierarkizatzeari dagokio- na.

Horrenbestez, foru lege honek premisa hauek hartzen ditu abiapuntu:

– Jarduera ekonomikoek tramitazioa, dela haien abiarazpenekoa dela haiek ondoren kontro- latu eta garatzeari dagokiona, dagoeneko estatu osoan dagoen berbera izatea, merkatu-batasuna- ren berme gisa, oinarrizko araudiak jadanik erre- gulatuta dituen kasuetan.

– Horiei aplikatu beharreko araubide juridikoa sinplifikatzea, betiere utzi gabe beharrezkoak

diren kontrola eta jarraipena egiteari, bermatze aldera indarreko araudia betetzen dela eta, noski, errespetatzen dela herritarrek ingurumen egoki baterako duten eskubidea. Betiere ahalegindurik bateragarriak izan daitezten jarduera ekonomikoek ezarpenerako kudeatze-lanaren azkartasuna eta ingurumenaren babes egokia. Horrela segurtasun juridikoa bermatu nahi da, pertsona ez ezik jar- duera horien sustatzaileena ere, aurrerapausoak emanez ekonomia zirkularra deritzona gauzatzeko bidean.

– Ingurumen arloko esku-hartzearen xede izan daitezela, egiazki, Nafarroako Foru Komunitate- ren lurraldean ingurumen-eragina izan dezaketen jarduerak, sinplifikatuz kasuan kasuko baimenak eta lizentziak lortzeko bideak.

Ildo horretan, lege berri honen asmoa da pro- zedura-bikoizkeriak saihestea, azkartasuna eta eraginkortasuna areagotzen saiatuz.

Beste asmo bat da herritarren eta enpresen erantzunkidetasuna ziurtatzea, baina, aldi berean eta modu partekatuan, baimenak eta lizentziak epe ezarrietan eman behar dituzten administra- zioena ere bai.

Abiapuntutzat hartzen den ideia nagusia da oinarrizko araudiak eraentzen dituen prozedurak ez errepikatzea, aski izanik prozedura horietarako igorpena egitea, eta Nafarroako administrazio publikoek eskumenekoak direnak eraentzea.

Halatan, ezartzen da jarduera horiek garatzen diren toki entitateek horien berri emanen dutela horien hirigintza-egoerari dagokionez, baina jar- duera sailkatuaren lizentzia eman behar izan dezatela, soilik, ingurumenaren eskumena duen Nafarroako Gobernuaren departamentuaren inola- ko txosten aurretiazkorik behar ez den kasuetan.

Horrela, toki entitateek jarduera sailkatuaren lizentzia eman beharko dute, soilik, ingurumenean eragin txikiena duten jardueretarako (3. eranskine- an jasota daude), baldin eta ez badaude lizentziaz salbuetsirik, Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeako presako neurriei buruzko abendua- ren 26ko 12/2012 Legean ezarritakoarekin bat.

Ildo horretan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 180. artikulua ezartzen duenez –apirilaren 6ko 7/2010 Foru Legeak emandako testuaren arabera (2010eko apirilaren 14ko NAO)–, toki entitateen esku-hartzea gauzatzen ahalko da alde aurreko lizentzia-edukitzarako betebeharraren bidez eta prebentziorako beste kontrol-egintza batzuen bidez; eta, zerbitzu-jardueretan libreki hasi eta ari- tzeari buruzko araudiaren aplikazio-esparruko jar-

duera eta zerbitzuetan hasi eta aritzeari dagokionez, araudi horretan xedatuari heldu beharko zaio.

Bestalde, zerbitzu-jardueretan libreki hasi eta aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legeak ezartzen du zerbitzu-jarduera batean hasi eta aritzea erregulatzen duen araudiak zerbitzu-emaileei ezin izanen diela ezarri baimentze-araubiderik, salbuespenez izan ezik eta baldintza batzuk betetzen direlarik, ingurumenaren babes, kasu; eta baldintza horiek behar adina arrazoitu beharko direla araubide hori ezartzen duen legean.

Horregatik, foru lege honetan ezarri behar da zein diren jarduera sailkatuaren lizentzia aurretiaz edukitzera baldintzatuz toki entitateek beren eraginarean pean ipin ditzaketen jarduera eta zerbitzu horiek.

Aitzitik, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuaren esku-hartzea behar izan eta kasuko eranskinetan jasota dauden jardueri dagokienez, ezartzen da departamentu hori izan dela beharrezkoa den baimena emanen duena eta haren jarraipena eta kontrola eginen dituen. Baimen berri bat sortzen da, beraz: ingurumen-baimen bateratua.

Premisa orokor horiek kontuan hartuta, foru lege berri honek inplikaturako gizarte sektoreen eta Nafarroako Gobernu departamentuen ekarpenak eta iradokizunak jaso ditu.

## ATARIKO TITULUA

### Printzipio eta xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Xedea eta helburuak.

Foru lege honen xedea da Nafarroako administrazio publikoen esku-hartze modu desberdinak arautzea, jomugatzat dutenak prebenitu eta murriztea zenbait jarduera publiko zein pribaturen kutsadura eta atmosferaren, uraren, lurzoruen, paisaiaren eta ingurune naturalaren gaineko ingurumen-inpaktua, ingurumenaren osotasuna ahalik eta gehien babestea lortzeko modu gisa.

Zehazki, foru lege honek helburu hauek ditu:

Ingurumen arloko kontrol administratiboa paratzea, zenbait instalazio, proiektu eta jarduera ezarri eta abian jarri aurrekoa, bai eta haien funtzionamenduan, abiarazpenean edo gauzatzean zeharrekoa ere.

Lankidetzeta eta koordinazioa bermatzea, foru lege honetan sartuta dauden instalazio, proiektu eta jardueren ezarpen, ustiapen eta aldaketan esku hartzen duten administrazio publiko desberdinen artekoa.

Ingurumen arloko baimentze-prozedurak sinplifikatzea, eta saiatzeari ahalik eta laburren eta seguruena direla ziurtatzen. Alde horretatik, tramitazioen trazabilitaterako erraztasunak ezarri beharko dira.

a) Ingurumen arloko informazioaren trukea, zabalkundea eta publizitatea sustatu eta antolatzeari.

b) Jarduera administratiboaren gardentasuna eta herritarren partaidetza areagotzea, gizarte ingurumenaren babesean gehiago inplikatzea lortzeko.

c) Instalazio, proiektu eta jardueren gaineko ingurumen-ikuskapeneko mekanismo eragingarriak ezartzea, legeekin bat datoze kontrolatzeko eta haietarako baimenen baldintzak berrikusteko.

d) Ingurumen-araudiarekin bat etorrarazteko jarduerak arautzea, jarduerak legeztatuz, neurri zuzentzaileak ezarri eta, behar izanez gero, ingurumenari eginiko kalteak konpondu edo konpentsatuz.

e) Arau-hausteetarako zehapen-araubidea ezartzea.

**2. artikulua.** Nafarroako Administrazio Publiko ingurumen arloko esku-hartzea gidatzen duten printzipioak.

1. Nafarroako Administrazio Publiko jardueren oinarrian printzipio hauek daude: prebenzioaren printzipioa, arreta edo zuhertasunarena, kutsatzen duenak ordaindu behar duela dioena, ekonomia zirkulararena, ingurumen-inpaktua konpondu edo zuzentzearena, ahal dela sorburuan bertan, eta parte-hartzearen printzipioa.

2. Ingurumenaren babeserako betebeharra Nafarroako Administrazio Publiko politiken eta ekintzen plangintzan eta exekuzioan integratu beharko da, garapen jasagarria sustatzeko helburuarekin.

Ingurumen arloko bateratzea honako irizpideen arabera garatuko da:

a) Dena delako jarduketaren bidez zer beharri erantzun nahi zaien justifikaturako duen alde aurreko azterketa egitea.

b) Ingurumen-betekizun eta -baldintzak jardueren diseinuan hasiera-hasierako planteamendutik integratzea.

**3. artikulua.** Administrazioen arteko lankidetzeta.

Ingurumen babes eragingarria praktikan jartzeko, administrazio publiko eskudunek beren jar-

duerak elkarren arteko informazio, elkarlan eta lankidetzaren printzipioetara egokituko dituzte. Zehazki, beren jarduerak eragingarriak eta koherenteak izan daitezen ziurtatzeko beharrezkoa den laguntza emanen diote elkarri, batez ere ingurumen-baimen integratuaren, ingurumen ebaluazioaren, ingurumen-baimen bateratuaren eta jarduera sailkaturako lizentziaren tramitazioan.

**4. artikulua.** Parte-hartze publikoa, zabalkundea eta informazioa eskuratzea.

1. Aitortzen da herritarrek eskubidea dutela foru lege honetan aurreikusitako prozedurei dagozkien erabakietan parte-hartzeko, egiaz eta modu eragingarrian.

2. Oro har eta behar bezala justifikatutako salbuespenetan kenduta, ingurumen arloko esku-hartzearen xede diren plan eta programa guztietan izanen dute herritarrek parte-hartze egiazkoa eta eragingarria, behin betiko onespina eman aurretik gauzatuko den parte-hartze prozesu bat betez, kontsulta izaerakoa. Partaidetza-prozesua partaidetza-plan baten bidez eginen da, zeinak honakoak izan beharko baititu gutxienez: planeamenduan interesa duten gizarte-eragile eta herritarren identifikazioa; proposamen edo alternatiba garrantzitsuenen laburpenak, herritarrek errazago uler ditzaten eta errazago zabal daitezen herritarren artean; bideragarritasun eta jasagarritasun ekonomikoari buruzko memoria; zabalkunderako eta partaidetzarako metodologia eta tresnak, barne direla bai online parte hartzeko sistemak, bai proiektu, plan edo programen edukia eta baloratutako alternatibak azaltzeko bilerak, partaidetza-prozesu horretan genero-ikuspegia sartuko dela bermatuta; eta, azkenik, gauzatutako partaidetza-prozesuaren konklusio baloratuak.

3. Eskubide hori erregelamenduz garatuko da, baina egiazko parte-hartze eragingarria ziurtatuko da beti.

4. Ingurumen arloko eskumena duen departamentuak informazio sistema bat izan beharko du, honakoei buruz behar adina daturekin:

a) Ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-baimen bateratua behar duten bere lurraldean kokaturiko instalazioen inbentarioa, bertan izandako altak eta bajak zehaztuta.

b) Emandako ingurumen-baimen integratuak eta ingurumen-baimen bateratuak, bai eta jaulki diren ingurumen-eraginaren adierazpenak eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenak ere, horien gutxienezko edukiarekin.

c) Bertara egindako bisiten ingurumen-ikuska-peneko txostenak, halaber adierazirik instalazioak

baimenaren baldintzak betetzeari buruz ateratako konklusioak, bai eta aurrera begira beharrezkoa den edozein jarduketari buruzkoak ere.

d) Nafarroako Foru Komunitateko uren, airearen, lurzorua, faunaren, floraren, paisaiaren, Natura 2000 Sarearen eta lurraldeko babes bereziko eremuen egoera eta kalitatea.

e) Ingurumeneko elementu eta baldintzei eragin dieten zein eragin liezaieketen ingurumenkudeaketako plan eta programak eta ingurumena babesteko gainerako jarduera publikoak.

f) Ingurumenarekin zerikusia duten xedeak eta kalitate-arauak.

g) Isuri nagusiak eta isuri kutsagarrien sorburu nagusiak, soinuazkoenak barne.

h) Isurketen muga-balio baimenduak eta ingurumen-baimenetan ezarritako gainerako baldintzak, baita eskueran dauden teknika onenak ere, instalazioaren ezaugarri teknikoak, eta haiek zehazteko baliatu diren tokian tokiko ingurumen-baldintzak.

i) Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldea ukitzen duten plan, programa zein proiektuei buruzko ingurumen-eraginaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenak.

5. Ingurumen arloko eskumena duen departamentuak informazio orokorra zabalduko du aldian behin, ingurumen-adierazleen bidez, aipatutako alderdien gainean.

Ingurumen arloko eskumena duen departamentuak modu sistematizatuan duen informazioa argitara emanen da eta, horretarako, herritar guztiek eskura izaten lagunduko duten bitartekoak erabiliko dira.

Artikulu honetan arautzen den informazioa publikoa izanen da Ingurumen arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziarako irispidea izateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean aurreikusitakoarekin bat.

**5. artikulua.** Akzio publikoa.

1. Publikoa izanen da administrazio eskudunei foru lege honek xedatutakoa bete dadin eskatzeko akzioa.

2. Edozein pertsonak eskatzen ahalko die administrazio eskudunei ingurumen arloko legeko egoerara itzultzeko neurriak har ditzaten, baita foru lege honetan xedatutakoaren arabera presuntzioz arau-hausteak diren jarduerak salatu ere.

**6. artikulua.** Ingurumen arloko erantzukizuna.

1. Lege eta erregelamenduzko arauetan nahiz foru lege honetan ezarritako betebeharrak, zuhurtasun-neurriak eta baldintzak, jarduera batean aritzeko behar direnak, betetzeak ez ditu arlo honetan dituzten betebeharrak betetzetik salbuetsiko Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueren entitate titularrak eta operadoreak, lege horren 14. artikuluan xedatutakoa ezertan galarazi gabe.

2. Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueren operadoreek, kasua bada, betetzen duten jarduerari edo jardueri datzekien ingurumen erantzukizunari aurre egiteko bide ematen dien finantza bermea izan beharko dute baimen edo lizentzian berariaz adierazten den unean, non eta ez dauden betebeharrak horretaz salbuetsita.

**I. TITULUA****Ingurumen arloko esku-hartzea, ingurumen-baimen bateratuaren bidezkoa****I. KAPITULUA****Ingurumen-arloko esku-hartzerako tresnak.****7. artikulua.** Aplikazio-eremua.

1. Foru lege honen menpe daude titulartasun publiko zein pribatuko plan, programa, instalazio, proiektu eta jarduerak, haiek onestean, abian jartzean edo gauzatzean gogaikarriak izan daitezkeenak, ingurumenaren baldintzak aldaraz ditzaketanak, edo ingurumenerako ukipenen arriskua sor dezaketanak.

2. Foru lege honetan arautzen diren ingurumen arloko esku-hartze administratiborako bideek Estatuko administrazio orokorrari bere eskumeneko gaitan dagozkion ingurumen arloko esku-hartzeak ez dituztela galarazten ulertzen da.

**8. artikulua.** Ingurumenean eragina duten planak, programak, instalazioak, proiektuak eta jarduerak.

1. Ingurumenean eragina duten planak, programak, instalazioak, proiektuak eta jarduerak dira ingurumen arloko esku-hartzea behar dutenak, ingurumen ebaluazioari eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuei buruzko oinarrizko legerian eta foru lege honetan aurreikusitakoarekin bat.

2. Gainerako instalazioak, proiektuak eta jarduerak, foru lege honetan aurreikusitakoarekin bat ingurumen arloko beste inolako esku-hartzerik

behar ez dutenak, ingurumenaren gaineko eragin gabekotzat joko dira, eta horiek ezarri, ustiatu, abian jarri edo gauzatzeko, beharrezkoa izanen da aplikatzekoak zaizkien legeetan ezarritakoa betetzea.

3. Ingurumenean eragina duten planak, programak, instalazioak, proiektuak eta jarduerak onetsi, ezarri, ustiatu, gauzatu edo abian jartzeko, eskuhartze mota hauetako bat beharko da:

a) Ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

b) Ingurumen-baimen integratua.

c) Ingurumen-baimen bateratua.

d) Ingurumen-ukipenen ebaluazioa.

e) Jarduera sailkaturako lizentzia.

f) Erantzukizunpeko adierazpena, jarduera edo instalazioa hasi, abian jarri edo itxi aurrekoa.

**9. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateak emandako ingurumen-baimenak.

Foru lege honetan araututako ingurumen-baimenetatik baimen-emaile Nafarroako Gobernuako ingurumen arloko eskudun den departamentua dutenak hauek dira:

a) Ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, oinarrizko legerian xedatuaren arabera.

b) Ingurumen-baimen integratua.

c) Ingurumen-baimen bateratua.

d) Ingurumen-ukipenen ebaluazioa.

**10. artikulua.** Ingurumen-ebaluazioa eta ingurumen-ukipenen ebaluazioa.

1. Ingurumen-ebaluazioa arautuko dute, hura behar duten planei, programei, proiektuei eta jarduerari dagokienez, oinarrizko araudian xedatutako tramitazioak eta printzipio orokorrek, salbu eta arau-hausteen eta zehapenen kasuan, zeinei aplikatuko baitzaie foru lege honetan xedaturikoa.

2. Ingurumen-ukipenen ebaluazioa egiten zaie ingurumen-eragin egiaztatua duten eta, beraz, ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioa egin behar zaien jarduera eta proiektuei, baldin eta Estatuko oinarrizko legerian jasotzen ez badira garrantzi txikiagoko proiektuak edo atalase apalagokoak izateagatik. Ingurumen-ukipenaren ebaluazioa egin behar zaien jarduerak foru lege honen 2. eranskinean jasota daude, eta titulu honen IV. kapituluaren adierazitakoaren arabera tramitatuko dira.

3. Lurralde- eta hirigintza-plangintzako tresnak behin betiko onesteko eskumenak esleituta dituzten toki-erakundeek ingurumen-organo gisa jardunen dute, Ingurumen-ebaluazioari buruzko martxoaren 9ko 21/2013 Legearen 11.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Hala ere, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrien kasuan, jarduera hori bere gain hartu ahal izanendu ingurumen-ebaluazioan eskumenak dituen Nafarroako Gobernuko departamentuak, bi administrazioek sinatutako hitzarmenaren bidez.

#### **11. artikulua.** Ingurumen-baimen integratua.

1. Ingurumen-baimen integratua arautuko dute, hura behar duten instalazioei, proiektuei eta jarduerari dagokienez, oinarriko araudian xedatutako tramitazioak eta printzipio orokorrek, salbu eta arau-hausteen eta zehapenen kasuan, zeinei aplikatuko baitzaie foru lege honetan xedaturikoa.

2. Hura emateko eskumena dagokio ingurumen-erloto eskumenak dauzkan Nafarroako Gobernuko departamentuari.

3. Funtsezkoa ez den aldaketa bat aldaketa garrantzitsutzat hartu ahal izanendu da baldin eta instalazioaren funtzionamendu-baldintzetan aldaketa garrantzitsuak eragiten baditu, daukan baimenean jaso behar direnak, halako moldez non beharrezko gertatzen baita baimen hori aldatzea erregelamenduz zehaztuko den prozedura sinplifikatuaren bidez.

4. Ingurumen-baimen integratua behar duen instalazio baten titularrak zilegi izanendu ingurumenaren erloto eskumena duen departamentuari eskatzea alda ditzala baimenean ezarritako isurien muga-balioak edo funtzionamendu baldintzak, baldin eta justifikatu ahal badu instalazioaren funtzionamenduak bete egiten dituela aplikatzekoak zaizkion teknika erabilgarri onenak (TEO), eta bereziki, aplikatzekoak diren TEO horien inguruko konklusioei dagozkien erabakiak. Ingurumen-baimen integratuaren baldintzen aldaketa tramitatuko da erregelamenduz ezarriko den prozedura erraztuaren bidez.

## **II. KAPITULUA**

### **Ingurumen-erloto esku-hartzerako tresnei buruzko xedapen amankomunak**

**12. artikulua.** Ingurumen-baimenak integratzea.

1. Instalazio, proiektu edo jarduera batek ingurumen-baimen bat baino gehiago behar duenean eta baimen horiek emateko eskumena Nafarroako Gobernuan ingurumen erloto eskumena duen departamentuarena denean, baimen horiek ingu-

rumen-baimen integratuan edo ingurumen-baimen bateratuan integratuko dira foru lege honetan ezarritakoarekin bat, aplikatu beharrek araudi sektorialean eskatzen diren betekizunak ere bertan jasota. Nolanahi ere, beharrezkoak badira, honakoak integratuko dira: hondakinak kudeatzeko baimena, jabari publiko hidraulikora zeharkako isurketak egiteko baimena eta atmosferarako isuriak egiteko baimena; horrez gain, ingurumen-inpaktuaren adierazpena edo ingurumen-inpaktuaren txostena ere jasoko ditu, baldin eta exigitzekoak badira.

2. Gainera, ingurumen-baimen integratuan eta ingurumen-baimen bateratuan integratuko da lurzoru urbanizazinean jarduerak egiteko baimena.

**13. artikulua.** Ingurumen-baimen eta ingurumen-txostenak integratzea Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuen eskumeneko baimen substantiboetan.

Instalazio, proiektu edo jarduera batek Nafarroako Gobernuko departamentu batzuen baimen substantiboa behar badu, eta, halaber, ingurumenaren erloto departamentu eskudunaren eskumena den ingurumen-baimen edo ingurumen-txostena behar badu, baimen edo txosten horiek hartan sartuko dira, sektoreko araudiak ezar ditzakeen salbuespenekin.

Beharrezkoak badira, honakoak integratuko dira: hondakinak kudeatzeko baimena, jabari publiko hidraulikora zeharkako isurketak egiteko baimena eta atmosferarako isuriak egiteko baimena; horrez gain, ingurumen-inpaktuaren adierazpena edo ingurumen-ukipenen txostena jasoko ditu”.

Nolanahi ere, ingurumen-baimenak edo ingurumen-txostenak negatiboak badira, edozein unetan eman direla ere, baina organo substantiboak baimen substantiboa eman aurretik jaso baditu, baimen hori emateko organo eskudunak ebazpena emanen du, ebazpen hori eragin duten arrazoiak azalduz, eta prozedurari amaiera eman eta jarduerak artxibatu eginen ditu.

**14. artikulua.** Ingurumen-baimen integratua, ingurumen-baimen bateratua, ingurumen-ukipenen txostena eta jarduera sailkatuaren lizentzia aurkaratzea.

1. Interesdunek foru lege honetan araututako prozeduretan egindako txosten lotesleen aurka egin ahal izanendu dute, bai ingurumen-baimen integratua, ingurumen-baimen bateratua, ingurumen-ukipenen txostena eta jarduera sailkatuaren lizentzia emateko prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena aurkaratuz, edo aipatuta-

ko txosten lotesleak aurkaratuz, baldin eta horiek baimen hori ematea eragozten badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Ingurumen-baimen integratua, ingurumen-baimen bateratua eta ingurumen-ukipenen txostena emateko prozedurari amaiera ematen dion ebazpena administrazio-bidean aurkaratzeak txosten lotesle edo erabakigarrietan ezarritako baldintzei eragiten dienean, errekurtsua ebazteko eskumena duen organoak halakoak eman dituzten organoei helaraziko die errekurtsua, horiek, egoki iritziz gero, alegazioak aurkez ditzaten hamabost eguneko epean. Alegazioak epe barruan eginez gero, errekurtsua ebazteko erabakigarriak izanen dira.

3. Jarduera sailkatuaren lizentzia administrazio-bidean aurkaratzeak eragina baldin badauka Nafarroako Gobernuaren menpeko organoek egindako txosten lotesle edo erabakigarrietan ezartzen diren baldintzetan, aurkaratze hori aipatu departamentu eskudunei helarazi beharko zaie, alegazioak aurkez ditzaten hamabost eguneko epean, egoki baderitzote. Alegazioak epe barruan eginez gero, errekurtsua ebazteko erabakigarriak izanen dira.

4. Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren aurka jar daitezkeen administrazioarekiko auzi-errekurtsuan nahitaezko txosten lotesle edo erabakigarri buruzko uziak ondorioztatzen badira, txostenak jaulki dituen administrazioa kodemandatutzat joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

### III. KAPITULUA

#### Ingurumen arloko esku-hartzea, ingurumen-baimen bateratuaren bidezkoa

##### 15. artikulua. Ingurumen-baimen bateratua.

1. Ingurumen-baimen bateratuaren araubideari lotuta egonen dira foru lege honen 1. eranskinetan jasotako instalazio publiko nahiz pribatuen ezarpena, funtzionamendua eta aldaketa. Baimen hori instalazioak edo horien aldaketak eraiki eta muntatu aurretik emanen da.

2. Ingurumen-baimen bateratua emateko organo eskuduna izanen da Nafarroako Gobernuan ingurumen arloko eskumenak dituen departamentua.

3. Ingurumen-baimen bateratua behar duen instalazioa edo jarduera Nafarroako Gobernuak edo harekin lotuta edo haren menpe dauden era-

kundeek sustatzen dutenean, ingurumen-baimen bateratuaren ordezkari ingurumen arloko departamentu eskudunak emandako nahitaezko txosten bat beharko da.

##### 16. artikulua. Ingurumen-baimen bateratuaren edukia

1. Ingurumen-baimen bateratuaren edukian zehaztaperik hauek sartuko dira, kasuen arabera eta bidezkoa denean:

a) Isurien muga-balioak eta, hala dagokionean, horien ordezkari neurri tekniko baliokideak, instalazioaren izaeraren eta ezaugarrien arabera, atmosferara, uretara eta lurzorura substantzia kutsagarriak isurtzeari eta zaratei eta dardarei dagozkienak.

b) Hondakinen ekoizpenari, kontrolari eta kudeaketa egokiari dagozkien prozedura eta metodoak.

c) Pertsonen eta ingurumenaren osasuna eta segurtasuna babesteko direla bermatzen duten neurri zuzentzaileak eta agindu teknikoak.

d) Bidezkoa denean, fidantza edo aseguruak, ingurumenaren gaineko kalteen konponketa edo prebentziorako, edo horiek gutxitu edo desagerrarazteko neurri erantzuteko behar adinakoa.

e) Aplikatzekoa den ingurumen-babeserako araudiak ezartzen dituen gainerako baldintzak.

2. Isurien muga-balioak zehazteko eta ingurumen-babesaren bermerako neurri zuzentzaileak nahiz agindu teknikoak zehazteko, teknika erabilgarri onenak erabiliko dira.

3. Abereen hazkuntza intentsiborako instalazioen kasuan, ingurumen-baimen bateratuaren baldintzak animalien ongizateari buruzko legeria kontuan hartuta finkatuko dira.

4. Aplikatzekoa den legeriaren arabera eskatu beharreko ingurumen kalitatearen betebeharrak betetzeko beharrezkoa denean aplikatzea teknika erabilgarri onenak erabiliz lor daitezkeen baldintzak baino zorrotzagoak, ingurumen-baimen bateratua eskuratzeko nahitaezkoa izanen da baldintza osagarriagoak aplikatzea, ezertan galarazi gabe bestelako neurriak ere ezartzea, ingurumen kalitatearen arauak betetzeko har daitezkeenak.

##### 17. artikulua. Instalazioen titularren betebeharrak.

Foru lege honen 1. eranskinetan jasotako jardueretako bat egiteko erabiltzen diren instalazioen titularrek betebeharrak hauek izanen dituzte:



a) Ingurumen-baimen bateratua izan eta bertan ezarritako baldintzak betetzea.

b) Betetzea aplikatzekoa den legeria sektorialean aurreikusitako kontroleko eta informazioa emateko betebeharrak, bai eta ingurumen-baimen bateratuak berak ezarritakoak ere.

c) Ingurumen arloko eskumena duen departamentuari jakinaraztea instalazioan egin nahi den edozein aldaketa, funtsezkoa izan nahiz ez.

d) Ingurumen arloko eskumena duen departamentuari jakinaraztea haren titulartasunaren eskualdaketa.

e) Ingurumen arloko eskumena duen departamentuari berehala jakinaraztea ingurumenari eragin diezaiokeen edozein gorabehera edo istripu, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea ezertan galarazi gabe.

f) Behar diren laguntza eta lankidetzak ematea zaintza, ikuskapen eta kontrol lanak egiten dituztenei.

g) Foru lege honetan eta aplikatu beharreko gainerako xedapenetan ezarritako beste edozein betebeharrak.

**18. artikulua.** Ingurumen-baimen bateratuaren xedea

1. Hona hemen ingurumen-baimen bateratuaren xedea:

a) Ingurumenean eragina duten jardueretarako prebentzio eta kontrol sistema bat izatea, eskuhartze administratiboko egintza bakar batean bilzen dituena ingurumen-baimen guztiak, baimen mota horren xede diren jarduerak abian jartzeko behar direnak, baldin eta horien gaineko eskumena Nafarroari badagokio.

b) Ingurumen-baimen bateratua behar duten instalazioek eta jarduerak foru lege honen xedea eta helburuak betetzen dituztela bermatzeko baldintza guztiak ezartzea, ingurumen-baimen bateratua ematean esku hartu behar duten unitate administratibo guztien arteko koordinazioa ziurtatuko duen prozedura baten bidez, tramiteak arindu eta karga administratiboak gutxitzearen.

2. Ingurumen-baimen bateratua emateak ez du galarazten jabari publiko hidraulikoaren okupaziorako, erabilerarako edo bertara hondakin urak isurtzeko exigitu beharreko baimenak edo emakidak lortu beharra, uren arloan indarra duen araudian eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoari jarraikiz.

**19. artikulua.** Ingurumen-baimen bateraturako eskaeraren edukia.

Ingurumen-baimen bateraturako eskaera zuzenduko zaio ingurumen arloko eskumenak dituen Nafarroako Gobernuko Departamentuari eta erregelamenduz ezartzen den dokumentazioa erantsi beharko zaio.

1. eranskinetako jardueren kasuan, eskaeraren edukia erregelamenduz ezarritakoa izanen da, baina, gutxienez ere, jarduera edo instalazioa xeheki deskribatzen duen dokumentu tekniko bat jaso beharko du; eta, urbanizaezin sailkaturiko lurzoruan kokatzen badira, ingurumen-ukipenen azterlan bat ere bai, ingurumenean eta, bereziki, Natura 2000 Sarean eta babes bereziko beste zona batzuetan izan ditzakeen efektu potentzialak identifikatu eta ebaluatuko dituena.

**20. artikulua.** Instalazioaren titulartasuna.

Instalazioaren edo jardueraren titularrarena edo titularrena izanen da ingurumen-baimen bateratuan ezarritako neurri eta baldintzak betetzeko erantzukizuna, bai eta haren funtzionamenduak ingurumenerako ekar ditzakeen ondorioena ere.

**21. artikulua.** Tramitazioa.

Erregelamenduz ezarriko da ingurumen-baimen bateratua emateko prozedura, baina, gutxienez ere tramite hauek izanen ditu:

a) Eskaera aurkeztea ingurumen arloko eskumena duen departamentuari.

b) Informazio publikoa.

c) Txostenak eskatzea jarduerarekin lotutako gai batzuei buruz iritzia eman behar duten beste organo eta administrazio publiko batzuei; besteak beste, halaber, Nafarroako Gobernuaren osasunaren eta babes zibilaren arloan eskumenak dituzten departamentuei, pertsonen osasunean eta segurtasunean eragina izanik erregelamenduz zehazten diren jarduera edo instalazioen kasuan. Era berean, jarduketak lurzoru urbanizaezinean ezarriko direla aurreikusten denean, hirigintzari eta lurraldeari dagozkion alderdiak aztertzen dituen txosten sektoriala eskatuko da.

d) Ebazpen proposamena eta sustatzaileari entzunaldia emateko tramitea.

e) Ingurumen-baimen bateratua emateko edo ukatzeko ebazpen arrazoitua.

**22. artikulua.** Ebazpena.

1. Ingurumen-baimen bateratua emateko eskumena duen organoak emanen du prozedura amai-

tzeko ebazpena, eskaera osoa aurkezten den egunetik hasita sei hilabeteko epean gehienez.

2. Ebazpena jakinarazi beharko zaie instalazioaren titularrari, instalazioa kokatuta dagoen toki entitateari, txosten loteslea eman duten organo administratiboei, informazio publikoaren epean alegazioak aurkeztu dituztenei eta prozeduran interesa duten gainerako pertsoneri, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara.

3. Sei hilabete igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, ingurumen-baimen integratuaren eskaera ezetsi dela ulertuko da.

### **23. artikulua.** Jardueraren hasiera.

1. Instalazioa ezin izanen da jardunean hasi titularrak ez badu aurkeztu ingurumen arloko eskumena duen departamentuan abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat, zeinetan adierazten baitu, bere erantzukizunez, emandako baimenean eta ondoren izandako aldaketetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, indarreko araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela, hori frogatzen duen dokumentazioa baduela eta konpromisoa hartzen duela horiek betetzen segitzeko baimenak indarra duen bitartean.

2. Ingurumen-baimen bateratua eman ondoren, titularrak bost urteko epea izanen du, gehienez ere, jarduerari hasiera emateko, baimenean beste epe bat ezartzen ez bada.

3. Instalazioa lurzoru urbanizaezinean baldin badago, jarduera gauzatu eta abian jartzeko gehieneko epea izanen da lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan indarra duen legerian ezarritakoa, baimenean ez bada epe laburragorik ezartzen.

4. Osotara gauzatzen ez diren proiektu baimenduen kasuan, partzialki gauzatutako instalazioaren jarduerari hasiera ematen ahalko zaio, baldin eta neurri zuzentzaileak eta gainerako funtzionamendu baldintzak baditu, jardueraren zati horri dagozkionak, emandako ingurumen-baimen bateratuak ezarritakoak; nolahi ere, abian jartze partzialari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da aldez aurretik.

### **24. artikulua.** Ingurumen-baimen bateratuaren eraginkortasuna.

1. Ulertuko da ingurumen-baimen bateratua emanen dela jabetza eskubidea gorderik eta hirugarrenentzako kalterik gabe; hortaz, titularrak ez dira salbuetsiko beren jarduerak betetzean dituzten erantzukizun zibil edo penaletatik.

2. Ezin izanen da obra-lizentziarik eman, harik eta kasuko ingurumen-baimen bateratua eman arte.

3. Zilegi izanen da ingurumen-baimen bateratua eskualdatzea, baina ingurumen arloko eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko zaio eskualdaketa, jardueraren subjektu titularra zein den eta titular izatetik erator litezkeen balizko erantzukizunak zein diren zehazte aldera.

### **25. artikulua.** Ingurumen-baimen bateratua iraingitzea.

1. Titularrak jarduerari hasiera ematen ez badio 23 artikuluan adierazitako epean, ingurumen-baimen bateratuak bere efektuak galduko ditu eta eragingabe bilakatuko da.

2. Era berean, osotara gauzatu gabeko proiektuen kasuan, jarduerari hasiera emateko epea iraganik, ulertuko da ingurumen-baimen bateratua iraingita dagoela eta eraginik ez duela, betiere jarduera partzialki abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpenean sartu gabeko instalazioari edo prozesuei dagokien zatian.

### **26. artikulua.** Instalazioaren edo jardueraren aldaketa.

1. Ingurumen-baimen bateratua behar duten instalazioetan edo jardueretan egiten diren aldaketak funtsezkoak edo ez-funtsezkoak izan daitezke.

Instalazioaren edo jardueraren aldaketa bat funtsezkoa dela ulertuko da hasieran emandako ingurumen-baimenean aurreikusi gabeko aldaketa bat egin nahi denean, funtzionamendu baldintza normaletan, eta aldaketa horrek instalazioaren ezaugarriei, ekoizpen prozesuei, funtzionamenduari edo hedadurari eragiten badie, ingurumenaren gaineko eragin handiagoarekin, Babes Zibilaren arloan eskuduna den departamentuaren alde aurreko txostena behar denean eta ondorengo alderdiei dagokienez erregelamenduz ezartzen diren irizpideetatik edozein betetzen denean:

- a) Instalazioaren tamaina eta ekoizpena.
- b) Instalazioak erabiltzen dituen natura-baliabideak.
- c) Ur eta energia kontsumoa instalazioan.
- d) Sortutako hondakinen bolumena, pisua eta tipologia.
- e) Instalazioaren ukipena jasan dezaketen eremu geografikoetako natura-baliabideen kalitatea eta birsortzeko ahalmena.

f) Sortutako kutsadura maila.

g) Istripu-arriskua.

h) Substantzia arriskutsuak erabiltzen hastea edo haien erabilera handitzea.

i) Arrisku intrintsekoaren maila.

Instalazio edo jarduera bat handitzea edo haren ezaugarriak edo funtzionamendua aldatzea, edozein modutan, funtsezkoa dela ulertuko da aldatzea edo handitzea, berez, 1. eranskinean ezarritako ahalmen mugetara iristen bada.

2. Egin gogo diren aldaketak lurzoru urbanizaezinean baldin badaude eta berekin ekartzen badute jarduera edo erabilera aldaketa edo bolumena handitzea, edo zerbitzu eskaera berria behar badute, beharrezkoa izanen dute beti lurzoru urbanizaezineko jardueretarako baimen berri bat. Nolanahi ere, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan indarrean dagoen legedian xedatutakoari helduko zaio.

3. Instalazioaren edo jardueraren titularrak instalazioan proiektatzen den jardueraren edozein aldaketa jakinarazi beharko dio ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuari, dela ekoizpen prozesuan dela ingurumen emaitzekin lotutako alderdietan gertatutakoa eta adierazi beharko du, arrazoituz, funtsezkoa edo ez-funtsezkoa den, bere iritziz.

4. Instalazioaren edo jardueraren titularraren iritziz, jakinarazitako aldaketa ez-funtsezkoa denean, gauzatzen ahalko du, baldin eta ingurumen arloko eskumena duen departamentuak kontrako irizpenik eman ez badu hilabeteko epean, horrek obra lizentzia edo beharrezkoak diren bestelako lizentziak tramitatu beharra galarazi gabe, betiere.

5. Instalazio edo jardueraren titularrak edo ingurumen arloko eskumena duen departamentuak aldaketa funtsezkoa dela ulertzen badu, aldaketa ezin izanen da gauzatu harik eta erregelamenduz ezartzen den prozeduraren bidez ingurumen-baimen bateratua aldatu arte.

6. Funtsezko aldaketa bat ezin izanen da jardunean hasi titularrak ez badu aurkeztu ingurumen arloko eskumena duen departamentuan abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat, zeinetan adierazten baitu, bere erantzukizunez, baimen aldatuan ezarritako baldintzak betetzen dituela, indarreko araudian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, hori frogatzen duen dokumentazioa baduela eta konpromisoa hartzen duela horiek betetzen segitzeko baimenak indarra duen bitartean.

**27. artikulua.** Ingurumen-baimen bateratuaren ofiziozko aldaketa.

1. Isurien muga-balioak eta ingurumen-baimen bateratuan ezarritako baldintzak ofizioz aldatzen ahalko ditu ingurumen arloko eskumena duen departamentuak, inguruabar hauetako bat edo batzuk gertatuz gero:

a) Instalazioak sortutako kutsadurarengatik komenigarria denean isurien muga-balioak edo baimenaren beste baldintza batzuk berrikustea.

b) Eskueran dauden teknikarik onenetan aldaketa garrantzitsuak izatearen ondorioz posible denean isuriak nabarmen murriztea, gehiegizko kosterik ezarri gabe.

c) Prozeduraren edo jardueraren funtzionamenduaren segurtasunak beste teknika batzuk erabiltzera behartzen duenean.

d) Ingurumen arloko arauetan aldaketak izatea edo arau berriek indarra hartzea, izaera sektorialekoek, instalazioan edo jardueran eragina dutenak.

e) Iritzen zaionean ustekabeko inguruabarrak izan direla gerora, baimenaren baldintzak berrikustera behartzen dutenak.

f) Instalazioari edo jarduerari aplikatzekoa zaion indarreko legediak horretara behartzen duenean.

g) Instalazioan gauzatzen den jardueraren parte bat behin betiko amaitzea.

2. Erregelamenduz ezarriko da ingurumen-baimen bateratua ofizioz aldatzeko prozedura.

**28. artikulua.** Ingurumen-baimen bateratua aldatzea, titularrak hala eskatuta.

Ingurumen-baimen bateratuan ezarritako isurketen muga-balioak eta baldintzak titularraren eskariz aldatu ahal izanen ditu ingurumen-arloan eskumena duen departamentuak, baldin eta, instalazioaren aldaketarik aurreikusi gabe, titularrak justifikatzen badu baldintza berriek antzeko ingurumen-babes maila izanen dutela eta bat etorriko direla Teknika Erabilgarri Onenak betetzearekin.

**29. artikulua.** Jarduerari aldi batez uztea

1. Instalazioaren titularrak jakinarazpen bat aurkeztu beharko du ingurumen arloko eskumena duen departamentuan, jarduerari, osorik edo partzialki, aldi batez utzi aurretik. Jakinarazpenetik hasita gehienez ere bi urte iraunen du jardueraren etenak.

2. Instalazioa jarduerarik gabe dagoen aldi horretan, titularrak bete beharko ditu indarreko

ingurumen-baimen bateratuan ezarritako baldintzak, jardunean dagoen instalazio zatiari aplikatzekoak zaizkionak, eta jarduerari berriz ekiten ahalko dio ingurumen-baimen bateratuan jasotako baldintzekin bat, organo eskudunari jakinarazi ondoren.

3. Jarduerari aldi batez uzteari buruzko jakinarazpena egin eta bi urtera jarduera berriz hasi ezean, ingurumen arloko eskumena duen departamentuak jakinaraziko dio titularrari hilabeteko epea duela jarduera berriz hasi dela frogatzeko.

4. Jarduera berriz hasten ez bada, instalazioa itxi eginen da, partzialki nahiz osorik, hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

### **30. artikulua.** Instalazioa partzialki ixtea.

1. Jardueraren zati bati behin betiko uzteak berarekin ekartzen badu instalazioaren erreforma, hura desmuntatzeko, titularrak behar den proiektu teknikoa aurkeztu beharko du ingurumen arloko eskumena duen departamentuan.

2. Ondoren, ingurumen arloko eskumena duen departamentuak ebazpena emanen du itxiera partziala baimentzeko eta itxiera egiteko baldintzak ezartzeko; horrez gain, ingurumen-baimen bateratua aldatuko du, instalazioaren konfigurazio berrira egokitzearen.

3. Instalazioaren itxiera partziala gauzatu ondoren, titularrak ixte partzialari buruzko erantzunkizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan adierazi, bere erantzukizunez, itxiera gauzatu dela proiektu teknikoaren eta ezarritako baldintzen arabera, eta hori frogatzen duen dokumentazioa duela.

4. Frogatzen bada itxiera partzialak instalazioaren ahalmena gutxitzea dakarrela, 2. eranskinean ezarritako mugetatik behera gutxitu ere, ingurumen arloko eskumena duen departamentuak ebazpena emanen du instalazioaren ingurumen-baimen bateratua iraungitzeko, eta aplikatzekoa izanen da 54. artikuluan xedatutako instalazioen trantsizio-araubidea.

**31. artikulua.** Instalazioa edo jarduera osorik ixtea.

1. Titularrak erabakitzen badu jarduerari behin betiko eta osorik uztea, instalazioa edo jarduera osorik ixteko proiektu tekniko bat aurkeztu beharko du ingurumen arloko eskumena duen departamentuan.

2. Era berean, egokia bada, titularrak aurkeztu beharko du instalazioaren kokaguneko lurzorua- ren egoerari buruzko txostena bat ingurumen arloko eskumena duen departamentuan, horren bidez

ebalatu ahal izateko lurzorua- ren kutsadura maila, Lurzoria kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lur kutsatuak deklaratzeko irizpide eta estandarrek ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan edo horretarako ezartzen den araudian ezarritako irizpide eta estandarrekin bat.

3. Ingurumen arloko eskumena duen departamentuak ebazpena emanen du instalazioa ixteko baimena emateko, eta bertan ezarriko dira itxierarako baldintzak, zeinetako bat izan baitaiteke finantza berme bat eratzea, instalazioaren itxierari datxezkion kostuei erantzutearren.

4. Instalazioaren itxiera gauzatu ondoren, titularrak ixteari buruzko erantzunkizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan adierazi, bere erantzukizunez, itxiera gauzatu dela proiektu teknikoaren eta ezarritako baldintzen arabera, eta hori frogatzen duen dokumentazioa duela.

5. Amaitzeko, ingurumen arloko eskumena duen departamentuak ebazpena emanen du instalazioaren ingurumen-baimen bateratua iraungitzeko.

## **IV. KAPITULUA**

### **Ingurumen-ukipenen ebaluazioaren bitarteko ingurumen esku-hartzea**

**32. artikulua.** Ingurumen-ukipenen ebaluazioa.

1. Ingurumen-ukipenaren ebaluazioa eginen zaie lurzoru urbanizaezinean kokatutako proiektuei, foru lege honen 2. eranskinean jasotakoei.

2. Era berean, ingurumen-ukipenen ebaluazioa egin beharko zaio aurreko puntuan jasotako proiektu baten ezaugarrien edozein aldaketari, baldin eta aldaketa horrek, bere horretan, 2. eranskinean ezarritako atalaseak betetzen baditu.

**33. artikulua.** Ingurumen-ukipenak ebaluatze-ko tramiteak eta epeak

1. Ingurumen-ukipenak ebaluatze-ko prozedura tramite hauetan garatuko da:

- a) Hasiera emateko eskabidea.
- b) Ingurumen-ukipenen espedientearen azterketa teknikoa.
- c) Ingurumen-ukipenen txostena.

2. Ingurumen-organok hiru hilabeteko epea izanen du tramite horiek egiteko, ingurumen-ukipenen espedientea osorik jasotzen denetik zenbatzen hasita.

**34. artikulua.** Hasiera emateko eskaera.

Hasiera emateko eskaera sustatzaileak aurkeztu beharko dio jarduerarako baimena emateko

eskumena duen organo substantiboari, zeinak ingurumen-organuari bidaliko baitio erregelamendu bidez ezartzen den dokumentazioa.

**35. artikulua.** Ingurumen-ukipenen txostena.

1. Ingurumen-organook, espedientearen azterketa tekniko amaitu ondoren, espedientea ebatziko du, eta, horretarako, proiektuaren ingurumen-ukipenen txostena eginen du, espediente osoa jaso eta gehienez ere hiru hilabeteko epean.

2. Ingurumen-ukipenen txostena aginduzkoa eta erabakigarria izanen da proiektua egitearen bidez kotasanari, proiektua gauzatzearen ingurumen-ondorioei, eta, hala badagokio, hura garatu ahal izateko baldintzei, neurri zuzentzaileei eta konpentsazio-neurriei dagokienez. Txosten horren edukia organo substantiboaren baimen-prozeduran txertatu beharko da.

3. Ebazpenak zehaztu beharko du, bidezkoa bada, proiektua bateragarria den Natura 2000 Sarea sortu den babes-helburuekin edo ingurumen-arrazoiengatik espazio babestu izendatzea eragin duten helburuekin.

4. Ingurumen-ukipenen txostena proiektuaren baimenaren organo substantiboari jakinarazi beharko zaio, ebazpenean kontuan har dadin.

**36. artikulua.** Erantzukizunpeko adierazpena

Proiektua edo jarduera gauzatu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko zaio organo substantiboari, jarduera aurkeztutako proiektuaren arabera egin dela eta ingurumen-ukipenen txostenean jasotako baldintzak bete direla adierazteko. Organo substantiboak horren kopia bat bidaliko dio ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuari.

**37. artikulua.** Indarraldia eta luzapena.

1. Proiektuaren edo jardueraren ingurumen-ukipenen txostenak indarraldia galduko du eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, baldin eta txostena ematen denetik lau urteko epean proiektua edo jarduera gauzatzen hasi ez bada. Kasu horietan, sustatzaileak berriz hasi beharko du proiektuaren ingurumen-ukipenak ebaluatzeko tramitea.

2. Sustatzaileak ingurumen-ukipenen txostenaren indarraldia luzatzea eskatu ahal izanen du aurreko apartatuan aurreikusitako epea igaro baino lehen. Sustatzaileak egindako eskaerak aurreko paragrafoko lau urteko epea etenen du, eta beste bi urtez luzatu ahal izanen da.

**V. KAPITULUA**

**Jarduera sailkaturako lizentzia behar duten instalazioak eta jarduerak.**

**38. artikulua.** Jarduera sailkaturako lizentzia.

1. Jarduera sailkaturako lizentziaren araubidearen menpe egonen dira foru lege honen 3. eranskinean jasotako instalazio publiko nahiz pribatuen ezarpena, funtzionamendua eta aldaketa. Lizentzia hori, betiere, instalazioak eraiki, muntatu edo lekualdatu aurretik eskuratu beharko da, eta egiten diren aldaketetara egokituko da.

2. Erregelamenduz zehazten ahalko da zer jarduerak jasotzen ahalko duten obra-lizentzia, jarduera sailkaturako lizentzia tramitatzen den bitartean. Inguruabar hori ezin izanen da aplikatu pertsonen segurtasunari eragitearen ondorioz babes zibilaren arloko departamentu eskudunaren txostena behar duten jardueren kasuan.

3. Kasu horietan, obrak gauzatzea titularraren erantzukizuna da, ez beste inorena, eta horrexek ez du baldintzatuko jarduera sailkaturako lizentzia ematea edo ukatzea, ezta toki entitateak lizentzian adierazten dituen baldintzetara nahitaez egokitu beharra ere.

4. Jarduera sailkaturako lizentzia emateko eskumena duen toki entitatea izanen da toki araudian lizentziak emateko eskumena esleitua duena.

**39. artikulua.** Jarduera sailkaturako lizentziaren xedea.

1. Jarduera sailkaturako lizentziaren xedea da:

a) Jardueren prebentzio eta kontrol sistema bat izatea, tokiko legeriarekin bat eskumen hori esleitua duten toki entitateen esku-hartze administratiborako egintza baten bidez gauzatuko dena.

b) Jarduera sailkaturako lizentzia behar duten instalazioek eta jarduerak foru lege honen xedea eta helburuak betetzen dituztela bermatzeko baldintza guztiak ezartzea, jarduera sailkaturako lizentzia ematean esku hartu behar duten unitate administratibo guztien arteko koordinazioa ziurtatuko duen prozedura baten bidez, tramiteak arindu eta partikularren karga administratiboak gutxitzearen.

2. Jarduera sailkaturako lizentzia ezin da eman, ez eta aldatu edo berrikusi ere, esku-hartze administratiborako gainerako bitartekoak eskueran izan arte; horiek dira, besteak beste:

a) Baimen substantiboak edo esku-hartze administratiborako beste bitarteko batzuk, legez edo erregelamenduz aldeztu aurreko administrazio

baimenari lotuta dauden instalazio, jarduera, industria eta zerbitzuenak.

b) Jardueraren edo instalazioaren esku-hartze administratiborako bitartekoei dagozkien jarduketak, pertsonen segurtasunean eta osasunean edo ingurumenean eragina duten jardueren kontrolerako eskumena duten administrazioek ezarritakoak, horrek galarazi gabe kasuan kasuko araudian ezarritako koordinazio tresnak.

3. Jarduera sailkaturako lizentzia emateak ez du galarazten jabari publiko hidraulikoaren okupaziorako, erabilerarako edo bertara hondakin urak isurtzeko exigitu beharreko baimenak edo emakidak lortu beharra, aplikatu beharreko araudi indardunean ezarritakoari jarraikiz.

**40. artikulua.** Instalazioen titularren betebeharrak.

Foru lege honen 3. eranskinean jasotako jardueretako baten edo hura betetzeko erabiltzen diren instalazioen titularrek betebeharrak izan behar dituzte:

a) Jarduera sailkaturako lizentzia izan eta bertan ezarritako baldintzak betetzea.

b) Aplikatzekoa den legeria sektorialean eta jarduera sailkaturako lizentzian bertan aurreikusitako kontroleko eta informazioa emateko betebeharrak betetzea.

c) Toki entitateari jakinaraztea instalazioan edo jardueran egin asmo den edozein aldaketa, funtsezkoa izan ala ez.

d) Toki entitateari jakinaraztea titulartasunaren eskualdaketa.

e) Toki entitateari berehala jakinaraztea ingurumenari eragin diezaiokeen edozein gorabehera edo istripu, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean aurreikusitakoa ezertan galarazi gabe. Kasu horietan, toki entitateak horren berri emanen dio berehala Nafarroako Gobernuan ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuari.

f) Behar diren laguntza eta lankidetzak ematea zaintza, ikuskapen eta kontrol lanak egiten dituztenei.

g) Foru lege honetan eta aplikatu beharreko gainerako xedapenetan ezarritako beste edozein betebeharrak.

**41. artikulua.** Tramitazioa.

1. Erregelamenduz ezarritako da jarduera sailkaturako lizentzia emateko prozedura, baina, guxtienez ere tramite hauek izan behar ditu:

a) Eskaera aurkeztea jarduera zer udal-mugar-tetan kokaturik dagoen, horko toki entitatean.

b) Informazio publikoa eta mugakide diren pertsonen jakinaraztea.

c) Txostenak eskatzea Nafarroako Gobernuan osasunaren edo babes zibilaren arloan eskumena duten departamentuari, pertsonen osasunean edo segurtasunean eragina duten jarduera edo instalazioen kasuan, erregelamenduz zehazten den moduan. Txosten hori toki entitateentzat loteslea izan behar da lizentziak ematen direnean.

d) Beharrezkoa denean, txostenak eskatzea arloa dela-eta eskudunak diren beste departamentu batzuei, edo jarduerarekin lotutako zenbait alderdiei buruz iritzia eman behar duten beste organo eta administrazio publiko batzuei.

e) Aurkeztutako dokumentazio teknikoaren erregelamendu bidez zehazten diren administrazio publikoko organoetara bidaltzea, baimen substantiboak emateko, bereziki abeltzaintza-ustategien arloan eskumena duen departamentura.

f) Ebazpen proposamena eta sustatzaileari entzunaldia emateko tramitea.

g) Lizentzia emateko edo ukatzeko ebazpen arrazoitua.

2. Aurreikusitako jarduera edo instalazioak lurzoru urbanizaezinean daudenean eta horiek gauzatu eta abian jartzeko beharrezkoa denean lurzoru urbanizaezineko jardueraren baimena, behar diren udal lizentziak eman behar dira baimen hura eman ondotik, inola ere ez lehenago.

Baimen hori tramitatu da lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan indarra duen legerian aurreikusitako prozeduraren arabera.

**42. artikulua.** Ebazpena.

1. Toki entitatearen titularrak eman behar du prozedura amaitzeko ebazpena, eskaera osoa aurkeztu den egunetik hasita lau hilabeteko epean gehienez.

2. Ebazpena jakinarazi behar duen instalazioaren titularrari, txosten loteslea eman behar duen organo administratiboei, informazio publikoaren epean alegazioak aurkeztu dituztenei eta prozeduran interesa duten gainerako pertsonen, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara.

3. Lau hilabete igaro eta ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, jarduera sailkaturako lizentziaren eskaria ezetsitatu behar da.

4. Udal konposatuaren kasuan, emandako jardueraren lizentziak igorri beharko dizkiete kasuaren kasuko kontzejuei bost eguneko epean.

**43. artikulua.** Lizentziaren edukia.

1. Jarduera sailkaturako lizentziaren edukian determinazio hauek sartuko dira, kasuaren arabera eta bidezkoa denean:

a) Isurien muga-balioak eta, hala dagokionean, horien ordezkotako neurri tekniko baliokideak, instalazioaren izaeraren eta ezaugarrien arabera, atmosferara, uretara eta lurzorura substantzia kutsagarriak isurtzeari eta zaratei eta dardareei dagozkienak.

b) Hondakinen ekoizpenari, kontrolari eta kudeaketa egokiari dagozkien prozedura eta metodoak.

c) Ingurumenaren eta, egokia denean, pertsonen osasuna eta segurtasuna bermatzen duten neurri zuzentzaileak eta agindu teknikoak.

d) Bidezkoa denean, fidantza edo aseguruak, ingurumenaren gaineko kalteen konponketa edo prebentziorako, edo horiek gutxitu edo desagerrazteko neurriei erantzuteko behar adinakoa.

e) Ingurumenaren babeserako araudiak, aplikatzekoak denak, ezartzen dituen gainerako baldintzak.

2. Isurien muga-balioak ezarriko dira aplikatzekoak diren teknika erabilgarri onenekin lotuta dauden isuri-mailen arabera, instalazioaren jardun-baldintza normaletan.

3. Aplikatzekoak den legeriaren arabera eskatu beharreko ingurumen kalitatearen betebeharrak betetzeko beharrezkoa denean aplikatzea teknika erabilgarri onenak erabiliz lor daitezkeen baldintzak baino zorrotzagoak, jardueraren sailkaturako lizentzia eskuratzeko nahitaezkoa izanen da baldintza osagarriagoak aplikatzea, ezertan galaz gabe bestelako neurriak ere ezartzea, ingurumen kalitatearen arauak betetzeko har daitezkeenak.

4. Jarduera sailkaturako lizentzian bilduko dira, orobat, hala eskatu behar denean, aplikatzekoak den ingurumen araudi sektorialean aurreikusitako jarduketek berekin dakartzaten baldintza guztiak.

**44. artikulua.** Jardueraren hasiera.

1. Jarduera sailkaturako lizentzia eman ondoren, titularrak bi urteko epea izanen du, gehienez ere, jarduerari hasiera emateko, baimenean beste epe bat ezartzen ez bada.

2. Jarduera abian jartzen ahalko da sustantzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ondoren, non titularrak adieraziko baitu, bere erantzukizunez, emandako lizentzian jasotako baldintzak betetzen dituela, indarreko araudiaren arabera eskatu beharreko baldintzak betetzen dituela, hori frogatzen duen dokumentazioa izatea barne, kasua bada, eta konpromisoa hartzen duela ezarritako baldintzak betetzeko lizentziaren xede den jardueraren jardunean dagoen bitartean.

3. Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak jardueraren egiaz aritzeko gaitzen du une horretatik aurrera, baina ez du inolara ere galarazten egoera eta baldintzak aplikatu beharreko araudiarekin bat egiaz etorri beharra, eta ez du mugatuko zaintza, kontrol eta zehapeneko ahalmen administratiboak betetzea.

**45. artikulua.** Jarduera sailkaturako lizentzia iraingitzea.

1. Aurreko artikuluan ezarritako epea iraganik instalazioa abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe, jardueraren sailkaturako lizentziaren eragina iraingitako da eta eragin gabe bilakatuko da.

2. Era berean, osotara gauzatu gabeko proiektuaren kasuan, jarduerari hasiera emateko epea iraganik, ulertuko da jardueraren sailkaturako lizentzia iraingitako dagoela eta eraginik ez duela, betiere jardueraren partzialki abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpenean sartu gabeko instalazioari edo prozesuei dagokien zatian.

**46. artikulua.** Jarduera sailkaturako lizentzia ofizioz aldatzea.

1. Toki entitateak ofizioz aldatzen ahalko ditu isurien muga-balioak eta jardueraren sailkaturako lizentzian ezarritako baldintzak, inguruabar hauek gertatzen denean:

a) Instalazioak sortutako kutsadurarengatik komenigarria denean isurien muga-balioak edo baimenaren beste baldintza batzuk berrikustea.

b) Eskueran dauden teknikarik onenetan aldaketak garrantzitsuak izatearen ondorioz posible denean isuriak nabarmen murriztea, gehiegizko kosterik ezarri gabe.

c) Prozeduraren edo jardueraren funtzionamenduaren segurtasunak beste teknika batzuk erabiltzera behartzen duenean.

d) Ingurumen arloko arauetan aldaketak izatea edo arau berriek indarra hartzea, izaera sektorialekoak, instalazioaren eragina badute.

e) Irizten zaionean lizentziaren baldintzak berri-kustera behartzen duten ustekabeko inguruabarrak agertu direla gerora.

f) Instalazioari edo jarduerari aplikatzekoa zaion indarreko legeriak hala eskatzen duenean.

2. Erregelamenduz ezarriko da jarduera sailkatutako lizentzia ofizioz aldatzeko prozedura.

**47. artikulua.** Jarduera sailkatuaren lizentziaren baldintzak aldatzea, titularrak eskatuta.

Jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako isuriaren muga-balioak eta baldintzak aldatu ahal izanen ditu toki-entitateak, titularrak eskatuta, baldin eta, instalazioan aldaketarik aurreikusi gabe, titularrak justifikatzen badu baldintza berriek antzeko ingurumen-babes maila izanen dutela eta bat etorriko direla Teknika Erabilgarri Onenak bete-zearekin.

**48. artikulua.** Jardueraren edo instalazioaren aldaketa.

1. Jarduera sailkaturako lizentzia behar duen instalazio edo jarduera batean titularraren ekime-nez egiten den aldaketa funtsezkoa edo ez-funtsezkoa izan daiteke.

2. Instalazioan aldaketa egin nahi duen titularrak jakinarazi beharko dio toki entitateari, arrazoiekin adieraziz aldaketa hori funtsezkoa edo ez-funtsezkoa den, eta azalduko arrazoiak justifikatzen dituzten agiriak erantsita.

3. Titularraren iritziz aldaketa ez-funtsezkoa denean, hura gauzatzen ahalko du, baldin eta toki entitateak kontrakorik adierazten ez badu hilabete-ko epean gehienez ere, ezertan galarazi gabe obra-lizentzia edo beharrezkoak diren bestelako baimenak tramitatu beharra.

4. Instalazio edo jardueraren titularrak edo toki entitateak aldaketa funtsezkotzat jotzen badu, aldaketa ezin izanen da gauzatu harik eta jarduera sailkaturako lizentzia aldatu arte erregelamenduz ezartzen den prozeduraren bidez.

5. Instalazioaren edo jardueraren aldaketa bat funtsezkoa dela ulertuko da hasieran emandako jarduera sailkaturako lizentzian aurreikusi gabeko aldaketa bat egin nahi denean, funtzionamendu baldintza normaletan, eta aldaketa horrek jardueraren edo instalazioaren ezaugarriei, ekoizpen prozesuei, funtzionamenduari edo hedadurari eragiten badie, ingurumenaren gaineko eragin handiagoarekin, eta alderdi hauei dagokienez erregelamenduz ezartzen diren irizpideetako edozein dagoenean.

6. Egin gogo diren aldaketak lurzoru urbanizaezinean baldin badaude eta berekin ekartzen badute jarduera edo erabilera aldaketa edo bolu-mena handitzea, eta/edo zerbitzu eskaera berria behar badute, beharrezkoa izanen dute beti lurzoru urbanizaezineko jardueretarako baimen berri bat. Nolanahi ere, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan indarrean dagoen legedian xedatutakoari helduko zaio.

**49. artikulua.** Jardueraren edo instalazioaren titularraren erantzukizuna.

Instalazioaren titularrarena edo titularrena izanen da jarduera sailkaturako lizentzian ezarritako neurri eta baldintzak betetzeko erantzukizuna, bai eta haren funtzionamenduak ingurumenerako ekar ditzaken ondorioena ere.

**50. artikulua.** Ingurumen-baimen sektorialak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ingurumen arloko eskumena duen departamentuarenak edo toki entitateenak.

1. Jarduera sailkaturako lizentziaren ondorioak izanen dira azaleko uretara zeharkako isurketa egiteko uren arloan indarra duen araudian aurreikusitako baimenak dituen berberak, eta baliokideak izanen dira biak.

2. Atmosfera kutsa dezakeen jarduera gisa erregistratu beharreko jardueren kasuan, airearen kalitateari buruzko indarreko araudian ezarritakoarekin bat, jarduera sailkaturako lizentziaren eskaerak jakinarazi beharko dizkio sustatzaileak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ingurumen arloko eskumena duen departamentuari.

3. Hondakin-kudeaketarako baimenari loturikoak diren edo hondakin-ekoizleen erregistroan inskribatu beharrekoak diren jardueren kasuan, jarduera sailkaturako lizentziarako eskaerak jakinarazi egin beharko dizkio sustatzaileak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ingurumen arloko eskumena duen departamentuari.

**51. artikulua.** Jarduera sailkaturako lizentziaren eraginkortasuna.

1. Ulertuko da jarduera sailkaturako lizentziak ematen direla jabetza eskubidea gorderik eta hirugarrenentzako kalterik gabe; hortaz, lizentzien titularrak ez dira salbuetsiko beren jarduerak betetzeari erantzukizun zibil edo penaletatik.

2. Ezin izanen da jarduera sailkatuetarako obra-lizentziarik eman, harik eta behar den jarduera sailkaturako lizentzia eman arte. Nolanahi ere, ingurumenean eragin txikia duten eta babes zibilar arloko eskumena duen departamentuaren



aldez aurreko txostena behar ez duten jarduera zehatz batzuetarako, obra-lizentzia ematen ahalko da jarduera sailkaturako lizentzia tramitatu bitartean, kasuan kasuko toki entitateak bere ordenantzan ezartzen dituen modu eta baldintzekin. Kasu horietan, obrak gauzatzea sustatzailearen erantzukizuna da, ez beste inorena, eta horrek ez du baldintzatuko jarduera sailkaturako lizentzia ematea edo ukatzea, ezta lizentzian adierazten diren baldintzetara nahitaez egokitu beharra ere.

3. Jarduera sailkaturako lizentziak eskualdatzen ahalko dira. Eskualdaketak lizentziak eman dituen toki entitateari jakinarazi beharko zaizkio, jardueraren subjektu titularra zein den eta titular izatetik erator litezkeen balizko erantzukizunak zehazteko ondorioetarako.

**52. artikulua.** Jarduera sailkaturako lizentziaren xede den jarduera ixtea.

Lizentziaren xede den eta lurzoru urbanizaezinean betetzen den jarduerari behin betiko uzteak berarekin ekarriko du jardueraren titularrak ukitutako lurra lehengoratu beharra gehienez ere bost urteko epean, erabilitako eraikuntzak eraitsiz eta/edo bertatik kenduz.

Lizentziaren xede den jarduerari behin betiko uzteko, lurzorua kutsa dezakeen jarduera denean, titularrak txosten bat aurkeztu beharko du Nafarroako Gobernuan ingurumen arloko eskumena duen departamentuan, jardueraren kokaguneko lurzoruaren egoerari buruzkoa, organo horrek ezarritako edukiarekin. Lurzorua kutsa dezakeen jarduera dela ezarriko da Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lur kutsatuak deklaratzeko irizpide eta estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 26ko 9/2005 Errege Dekretuan edo horretarako ezartzen den araudian ezarritako irizpide eta estandarrekin bat.

## VI. KAPITULUA

### Ingurumen eragina duten instalazioen eta jardueren trantsizio araubidea

**53. artikulua.** Trantsizioa, ingurumen-baimen integratuaren araubidetik ingurumen-baimen bateratuaren edo jarduera sailkaturako lizentziaren araubidera.

1. Ingurumen-baimen integratua duen jarduera edo instalazio batek aldaketa fisiko edo operatibo bat egin nahi badu, ingurumen-baimen integratuaren menpeko jarduera gisa sailkatua ez izatea dakarrena, instalazioaren titularrak ingurumen arloko eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko dio, kasuko proiektu teknikoak aurkeztuz.

2. Aldaketa egin ondoan, titularrak aldaketa egin izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuan, bai eta, horrekin batera, teknikari eskudun batek egindako ziurtagiri bat ere, non frogatuko baita aldaketak bat egiten duela instalazio edo jarduera berrirako legez ezarritako baldintzekin.

3. Jarraian, ingurumen-arloan eskumena duen departamentuak aldaketa baimentzeko ebazpena emanen du, eta aldaketa hori egiteko baldintzak ezarriko ditu.

4. Ingurumen arloko eskumena duen departamentuak, behin egin ondoren beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak, ebazpena emanen du instalazioak zuen ingurumen-baimen integratua iraungitzeko, eta ingurumen baimen bateratua emanen du, edo hura kokaturik dagoen toki entitateari jakinaraziko dio jarduera jarduera sailkaturako lizentziaren araubidearen menpe egonen dela aurrerantzean, toki entitate horrek eman dezan dagokion lizentzia.

5. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuaren ebazpenak, halaber, neurri zuzentzaileak eta nahitaezko aginduak jasoko ditu, instalazioaren ingurumen-baimen integratuaren ondoriozkoak, egoera berrira egokituak.

6. Horrelakoetan, ebazpena jaso ondoren, toki entitateak jardueraren titularrari jakinaraziko dio aurrerantzean jarduera hori jarduera sailkaturako lizentziaren araubidekoa izanen dela eta lizentzia emanen du.

7. Artikulu honetan ezarritako prozedura aplikatuko da soilik aldaketak instalazioen errealitate fisikoa edo operatiboa aldatzea dakarrenean, alegia ingurumen-baimen integratuaren menpeko jarduera gisa ez sailkatzea bermatzen duten aldaketak ekartzen dituenean.

8. Artikulu honetan ezarritako prozedura aplikatuko da ezertan galarazi gabe egin gogo diren aldaketek departamentu eskudunen lizentzia, baimena edo txostena behar izatea, kasua zein den.

**54. artikulua.** Jarduera sailkatuaren lizentziaren edo ingurumen-baimen bateratuaren araubidetik ingurumen-baimen bateratu edo integratuaren araubidera igarotzea.

Jarduera sailkatuko lizentzia bat aldatzeak berekin badakar jarduerak ingurumen-baimen integratua edo bateratua behar izatea, edo ingurumen-baimen bateratu bat aldatzeak berekin badakar jarduerak ingurumen-baimen integratua behar izatea, sustatzaileak tramitatu beharko du eskaera Nafarroako Gobernuan ingurumen arloko eskume-

na duen departamentuan. Departamentuak jakinaziko dio toki entitateari ingurumen baimen integratua edo bateratua eman duela, toki entitateak, beharrezkoa bada, bertan behera utz dezan emandako jarduera sailkaturako lizentzia.

## II. TITULUA

### Ingurumen arloko esku-hartzearen menpe jarritako proiektu, jarduera eta instalazioen ikuskapena eta jarraipena

## I. KAPITULUA

### Ikuskapena

**55. artikulua.** Ikuskapenaren xedea eta helburuak.

1. Ingurumen arloko esku-hartzearen menpe jarritako proiektu, jarduera eta instalazioen ikuskapenaren xedea da ingurumen aldetik legezkoa den egoerarekin bat datozela bermatzea, eta foru lege honetan, eta, oro har, ingurumen arloan indarreko araudian araututako baimen edo lizentzietan ezarritako baldintzak betetzen direla eta eragingarriak direla egiaztatzea.

2. Zehazki, ingurumen arloko esku-hartzearen menpe jarritako jardueren ikuskapenaren helburuak hauek dira:

a) Jarduerak egitea baimendu edo onetsi zaien baldintzetan egiten direla eta ingurumenez legezkoa dena egokitzen direla egiaztatzea.

b) Kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarako neurrien eraginkortasuna zehaztea, baita txosten, baimen edo lizentzian bildutako ingurumena babesteko neurriena ere.

c) Horiei buruzko informazio eguneratua izatea.

d) Legeztatu gabeko proiektu, jarduera eta instalazioak identifikatzea eta erregulatzea.

e) Oharrak, kexak, salaketak, gorabeherak eta istripuak kudeatzea.

f) Proiektu, jarduera eta instalazioek ingurumenean duten inpaktua murriztea.

g) Baimenak, adierazpenak edo lizentziak berrikusteko proposamenak egitea.

h) Enpresen ingurumen arriskuen ebaluazioa egitea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren industria-isuriei buruzko 2010eko azaroaren 24ko 2010/75/EB Zuzentarauaren 23. artikuluan adierazitakoari jarraikiz, ikuskapen lana planifikatzeko oinarria izan dadin.

**56. artikulua.** Ikuskatze eskumenak.

1. Nafarroako Gobernuari dagokio foru lege honen xede diren Nafarroan kokaturiko jarduera eta instalazioen ingurumen-ikuskapenak egiteko eskumena, baldin eta ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak ingurumen-inpaktuaren adierazpena, abian jartzeko baimena edo ingurumen-ukipenen txostena eman badu haietarako.

2. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak eta txosten lotesleak eman dituzten departamentuek erabiliko dituzte aurreko apartatuak hizpide dituen ikuskapen eskumenak.

3. Ingurumen-ebaluazio estrategikoa, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa edo ingurumen-ukipenen ebaluazioa beharrezkoa duten plan, proiektu eta jardueren kasuan, organo substantiboak egiten du ingurumen-adierazpen estrategikoan edo ingurumen-inpaktuari buruzkoan edo ingurumen-ukipenei buruzko txostenean ezarritako baldintzen betetzeari buruzko ikuskapena; hori ezertan galarazi gabe, ingurumen alorreko departamentu eskudunak zilegi izanen du organo eskudunei informazioa eskatzea proiektuaren oneste edo baimentzerako, bai eta beharrezkoak diren egiaztapenak egitea ere, horrela ziurtatze aldera zuzena dela eta bete egiten dela ingurumen-adierazpen estrategikoa, ingurumen-inpaktuari buruzkoa edo ingurumen-ukipenei buruzko txostena.

4. Jarduera sailkaturako lizentzien kasuan, horiek zein lurraldetan kokaturik dauden, bertako toki entitateei, nahitaezko lizentzia eman zutenei, dagokie ikuskapena, bai eta Nafarroako Gobernuko departamentuei ere, baldin eta lizentzia eman aurreko txostena egin bazuten.

5. Administrazio publikoek zaintza eta kontrola egiteko ahalmen batzuk ematen ahalko dizkiete Egiaztatze Erakunde Nazionalak ziurtatutako ikuskapen-entitateei, indarreko arau sektorialak ematen dizkien ahalmenez gain. Bete beharreko egingizunak eta horietan aritzeko baldintzak erregelamenduz ezartzen ahalko dira.

**57. artikulua.** Ikuskapenak planifikatzea.

1. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak planifikatuko ditu, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, bere eskumeneko ingurumen-ikuskapenak, sistematiko edo aurrez ezarriak zein gainerakoak.

2. Horretarako, ikuskapen programa bat edo gehiago eduki beharko ditu, non zehaztuko diren hartzen den eremu geografikoa, ukitzen dituen instalazioen mota edo kokalekua, ikuskapen-bisiten eta ingurumen kontrolerako beste modu ba-

tzuen maiztasuna, horien indarraldia eta erregelamenduz zehazten diren beste eduki batzuk.

3. Toki entitateek eginen dituzte jarduera sailkaturako lizentzien ikuskapenak, kasua bada ezar ditzaketen ikuskapen programei jarraikiz.

**58. artikulua.** Ingurumen arloko esku-hartzearen menpe jarritako jardueren ikuskatzaileak.

1. Ingurumen arloko esku-hartzearen menpe jarritako jarduerak ikuskatzeko lanak egiteko ofizialki izendatutako langileak agintaritzaren agentetzat joko dira berezko dituzten zereginetan aritzeko.

2. Organo eskudunek kanpoko ikuskatzaileak erabiltzen ahalko dituzte, baita kontrol-erakunde baimenduak ere, behar den gaitasuna eta prestakuntza teknikoa baldin badituzte erregelamenduz zehazten diren ikuskapenak egiteko.

**59. artikulua.** Ikuskatzaileen ahalmenak.

1. Ikuskatzaileek zilegi izanzen dute eskatzea foru lege honen menpean dauden subjektu publiko edo pribatuek daukaten edozein ingurumen-dokumentazio erakuts dakiela, eta halaber zilegi dute instalazioetara eta ikuskatuak izan behar diren gainerako lekuetara sartzea eta bertan egotea, aurretiaz identifikatuta baina aurretiazko abisurik gabe.

Bere ikuskapen zereginetarako etxe batera sartu beharko balute, baimen judiziala eskatu beharko lukete.

2. Ikuskatzaileek ahalmena dute ingurumenaren aldetik muntadun iruditzen zaizkien jardueraren edo instalazioaren zatien argazkiak egiteko. Jardueraren edo instalazioen halako parteetan non makineria edo elementuak baitaude barne hartzen dutenak titularren enpresa-estrategiaren osagai den informazio delikatu edo teknologikoa, titular horiek berariaz konfidentzial izendatutakoa ikuskapenean, ez zaie hirugarrenei sarbiderik emanen, eta halaber ez da horren dibulgaziorik eginen sekretu horiekin zerikusia duen espediente-zatian.

Ikuskapen-organoari dagokio, kasua bada, arrazoituz zehaztea zein argazki edo ikuskapen-espedientearen zati diren jardueraren edo instalazioen titularrek alegaturiko sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik ez dutenak.

3. Ikuskatzaileek beren ahalmenez baliatuz egiten dituzten akta eta txostenak dokumentu publiko izanzen dira eta horiek egitea eragiten duten egitateen froga balioa izanzen dute, interesdunek adierazi edo aurkez litzaketen frogak galaz gabe.

4. Hona hemen ingurumen arloko esku-hartzearen menpeko jardueren ikuskatzaileen zereginak:

a) Titularrari eskatzea egoki diren neurri zuzentzaileak har ditzan baimenaren edo lizentziaren baldintzak betetzeko.

b) Organo eskudunari behin-behineko eta behin betiko babes neurriak har daitezzen proposatzea eta, behar izatekotan, urratutako ingurumen legezkotasuna lehengoratzekoak, baita aldatutako errealitate fisikoa konpontzekoak ere.

c) Organo eskudunari jakinaraztea foru lege honetan tipifikatutako arau-hauste izan litezkeen egitateen egintza, baita egindako diligenziak ere, baldin badagokio, zehapen prozedura has dadin proposatuz.

d) Organo eskudunari ikuskatutako jarduerarako behar den baimena, ebaluazioa, txostena zein lizentzia aldatu, berrikusi edo bertan behera uzteko proposatzea, foru lege honetan aurreikusitako kasuetan.

e) Legez zein erregelamenduz ingurumena eta ingurumen legeak babesteari dagokionez esleitzen zaizkion beste jarduketak guztiak egitea.

**60. artikulua.** Ikuskapen ekintzaren menpe izatea.

1. Ingurumen arloko esku-hartzearen menpe jarritako instalazio eta jardueren titularrek behar den laguntza emanen diete ikuskatzaileei, beren zeregina betetzeko behar duten guztia egin dezaten: azterketak, kontrolak, laginak hartzea, eta informazio bilketa. Aurreko apartatuan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, ikuskapen zereginak eta laguntza emateko betebeharra oztopenen direla ulertuko da.

2. Foru lege honetan aurreikusitako ingurumen arloko esku-hartzeari dagokionez Administrazioari informazioa ematen dioten jarduera edo instalazioen titularrek informazio horren konfidentzialtasun izaera aldarrikatzen ahalko dute, industria prozesuei buruzko alderdiei eta konfidentzialtasuna legez aitortuta daukaten gainerako edozein alderdiri dagokienez.

**61. artikulua.** Komunikazio betebeharrak.

1. Aplikatzekoa zaion legeria sektorialean aurreikusitako auto-kontrol eta komunikazioko eta informazioa emateko betebeharez gain, ingurumen arloko esku-hartzearen menpe jarritako instalazio edo jarduera baten titularrek administrazio eskudunari honako gertaerak berehala jakinarazi beharko dizkio:

a) Auto-kontrolako sistemen edo instalazioen funtzionamendu anormala, baita pertsonen osasunari, beren ondasunei zein ingurumenari kalterik eragin liezaiokeen beste edozein gorabehera ere.

b) Pertsonen osasunerako zein ingurumenerako benetako arriskuak zein balizko arriskuak izan ditzakeen istripu bat egotea; horren gainean hartutako neurriak espresuki zehaztuko dira, eta administrazio eskudunari dagoen informazio guztia emanen zaio, berak egoki irizten dien erabakiak hartzeko.

c) Jarduera hiru hilabetetik gora borondatez etetea, kanpainako industrietarako izan ezik, baita jarduera behin betiko etetea ere.

d) Baimendutako jardueraren edo instalazioaren titulartasuna eskualdatzea.

e) Ingurumen-baimen bateratuan bertan edo jarduera sailkaturako lizentzian zehazten den beste edozein inguruabar.

f) Zehazki, ingurumen arloko esku-hartzearen menpe jarritako instalazioen titularrek administrazio eskudunari urtean behin jakinaraziko dizkiote atmosferarako isuriei, hondakin-uren isuriei eta hondakin-sorkuntza eta -kudeaketari buruzko datuak.

2. Ingurumen-baimen integratuen eta erregelamendu bidez zehazten diren ingurumen-baimen bateratuen titularrek urtean behin gutxienez ingurumen-arloan eskumena duen departamentuari jakinaraziko dizkiote instalazioari dagozkion isuriei, isuriei eta hondakin-transferentzietan buruzko datuak, horiek zehazteko erabilitako metodologia eta metodologia horren adierazgarritasuna egiaztatze behar besteko informazioa zehaztuta.

## **62. artikulua.** Publizitatea.

Ikuskapen jarduketan emaitzak jendearen esku jarri beharko dira, eta horretarako muga bakarrak legedian ingurumen gaiaren gaineko informazioa eskuratzeko eskubideaz ezarritakoak dira. Foru lege hau aplikatu ondoren sortzen diren datuen erregistroetan, sartutako informazioak sexuaren arabera bereizita egon beharko du.

## **II. KAPITULUA** **Jarraipena**

**63. artikulua.** Ingurumen-baimen integratua behar duten jardueren eta instalazioen kontrola.

1. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak eskumenak izanen ditu kautelazko eta kontrola egiteko neurriak hartzeko, baita zehazteko ahalmena erabiltzeko eta foru lege

honen helburuak betetzen direla bermatzeko ere, ezertan galarazi gabe Estatuak arlo honetan duen eskumena Estatuako Administrazio Orokorra kudeatutako arloetan gertatzen diren isurketei dagokienez.

2. Ikuskapenaren arloan eskudun diren administrazio organoek beste entitate batzuk izendatzen ahalko dituzte ikuskapen jarduketa materialak haien izenean egiteko, entitate horiek behar den gaitasun teknikoa frogatzen badute eta jarduketa horiek ez badira funtzionario publikoek ez beste inork egitekoak. Jarduketa horiek ez dira izanen, inola ere, ikuskapeneko sistema, plan edo programei buruzkoak. Entitate horiek izendatzeko, eta sektore publikoaren kontratuei buruzko legeriarekin bat, honako printzipio hauek betetzen dituen hautapen prozedurari jarraituko zaio: publikotasuna, gardentasuna, eskuratzeko askatasuna, diskriminaziorik eza eta tratua berdintasuna.

3. Organo eskudunek ikuskapen sistema bat ezarriko dute jardueren eta instalazioen ingurumen ikuskapenak egiteko, eta bertan jasoko da jardueraren edo instalazioaren ingurumenaren arloko ondorio garrantzitsu guztien azterketa ere. Horretarako, ikuskapen programa bat edo gehiago edukiko ditu, non zehaztuko diren hartzen den eremu geografikoa, ukitzen dituen instalazioen mota edo kokapena, ikuskapen bisiten eta ingurumen kontrolerako beste modu batzuen maiztasuna, indarraldia eta erregelamenduz zehazten diren gainerako edukiak.

4. Jarduketa hauen emaitzak jendearen esku jarri beharko dira, uztailaren 18ko 27/2006 Legearekin bat. Lege horren bidez arautu ziren ingurumen arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziarako irispidea izateko eskubideak.

**64. artikulua.** Ingurumen adierazpen estrategikoaren jarraipena.

1. Ingurumen adierazpen estrategikoaren jarraipenak berarekin dakar sustatzaileak organo substantiboari jarraipen txosten bat igortzea, ingurumen adierazpen estrategikoan edo ingurumen txosten estrategikoan ezarritako baldintzetan, ingurumen adierazpen estrategikoa edo ingurumen txosten estrategikoa betetzen direla frogatzeko. Jarraipen txostenen jasoko da ingurumena zaintzeko programan ezarritako neurriak egiaztatze zerrenda bat. Ingurumena zaintzeko programa eta aipatu zerrenda jendaurrean jarriko dira organo substantiboaren egoitza elektronikoa.

2. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak parte hartuko du plan eta programa horien jarraipenean. Horretarako, informazioa

eskatzen ahalko du, baita egoki jotzen dituen egiaztapenak egiten ere.

3. Estatuaren eskumeneko plan eta programe-tako ingurumen adierazpen estrategikoek eta ingurumen txosten estrategikoek ezartzen ahalko dute Nafarroako Foru Komunitatean ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak berak jarraipena egin dezan ingurumenari buruzko hainbat baldintza, irizpide edo adierazleen kasuan, organo substantiboak hala proposatu badu eta departamentu horrek espresuki onartzen badu.

4. Bikoiztasunak saihesteko, egun dauden jarraipen mekanismoak erabiltzen ahalko dira.

**65. artikulua.** Ingurumen-inpaktuaren adierazpenen eta ingurumen-ukipenen txostenen jarraipena.

1. Organo substantiboari dagokio ingurumen-inpaktuaren adierazpena edo ingurumen-ukipenen txostena betetzen direla jarraitzea.

2. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenak edo ingurumen-ukipenen txostenak zehazten ahalko dituzte, behar izanez gero, bertan ezarritako baldintzak betetzeko jarraipenaren betebeharrak. Ondorio horietarako, sustatzaileak jarraipen txostena igorriko dio organo substantiboari, kasuko ebazpenetan ezarritako baldintzak edo neurri zuzentzaileak eta konpentsatzaileak betetzen direla frogatzeko, hala egitea ezarri bada ingurumen-inpaktuaren adierazpenean edo ingurumen-ukipenen txostenean, betiere aipatu ebazpenetan ezarritako baldintzetan. Jarraipen txostenean jasoko da ingurumena zaintzeko programan ezarritako neurriak egiaztatzeko zerrenda bat. Ingurumena zaintzeko programa eta aipatu zerrenda jendaurrean jarriko dira organo substantiboaren egoitza elektronikoan.

3. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak informazioa eskatzen ahalko du, baita beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egiten ere, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edo ingurumen-ukipenen txostenaren baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

4. Sustatzaileak utzi behar die, agintaritza publiko gisa aritzen diren administrazio publikoko langileei, instalazioetara eta proiektuaren exekuzioarekin loturiko tokietara sartzeko, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan ezarritako barmee-kin bat. Sustatzaileak, halaber, horiek jarduteko behar duten laguntza eman behar die, eta horretarako eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia emanen du.

5. Energia nuklearrari buruzko legearen menpeko proiektuetan eta lehergailuak ekoiztekoetan

izan ezik, Estatuaren eskumeneko plan eta programetako ingurumen-inpaktuaren adierazpenek eta ingurumen-inpaktuaren txostenek ezartzen ahalko dute Nafarroako Gobernuan ingurumenaren arloko eskumena duen organoak berak jarraipena egin dezan ingurumenari buruzko hainbat baldintza, irizpide edo adierazleen gainean, organo substantiboak hala proposatu badu eta departamentu horrek espresuki onartzen badu.

**66. artikulua.** Ingurumen-baimen bateratua behar duten jardueren jarraipena.

1. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio ingurumen-baimen bateratua behar duten jardueren jarraipena egitea.

2. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak zilegi izanen du ingurumen-baimen bateratua behar duten jardueretarako kautelazko neurriak eta kontrol eta ikuskapenekoak erabakitzea, bai eta zehatze-ahalmena egikaritzekoak eta foru lege honen helburuak betetzen direla bermatzekoak ere, ezertan galarazi gabe Estatuak arlo honetan duen eskumena Estatuko Administrazio Orokorrak kudeatutako arroetara eginikoak diren isurketei dagokienez.

3. Ondorio horietarako, beste entitate batzuk izendatzen ahalko dira ikuskapen jarduketa materialak bere izenean egiteko, entitate horiek behar den gaitasun teknikoa frogatzen badute, jarduketa horiek ez badira funtzionario publikoek ez beste inork egitekoak. Jarduketa horiek ez dira izanen, inola ere, ikuskapeneko sistema, plan edo programei buruzkoak. Entitate horiek izendatzeko, eta sektore publikoaren kontratuei buruzko legeriarekin bat, honako printzipio hauek betetzen dituen hautapen prozedurari jarraituko zaio: publikotasuna, gardentasuna, eskuratzeko askatasuna, diskriminaziorik eza eta tratu berdintasuna.

4. Sistema bat ezarriko da jardueren eta instalazioen ingurumen ikuskapenak egiteko, eta bertan jasoko da jardueraren edo instalazioaren ingurumenaren arloko ondorio garrantzitsu guztien azterketa ere. Horretarako ikuskapen programa bat edo gehiago izan behar dira, non zehaztuko diren hartzen den eremu geografikoa, ukitzen dituen jarduera edo instalazioen mota edo kokapena, ikuskapeneko eta ingurumen kontrolako beste modu batzuen maiztasuna, indarraldia eta erregelamenduz zehazten diren gainerako edukiak.

5. Jarduketa hauen emaitzak jendearen esku jarri beharko dira.

**III. KAPITULUA****Jarduera sailkaturako lizentzia behar duten jardueren kontrola eta ikuskapena****67. artikulua.** Organo eskudunak.

Jarduera sailkaturako lizentzia eman duten toki entitateei dagokie jarduera horien jarraipena, ezertan galarazi gabe departamentuen eskumenak, horiek txostenak egin badituzte haien eskumen berariazkoak direla-eta.

Ondorio horietarako, administrazio organo eskudunen arteko lankidetzaren alde eginen da.

**III. TITULUA****Diziplina eta ingurumen arloko legezko egoera lehengoratzea****I. KAPITULUA****Baimen edo lizentziarik gabeko jarduerak legeztatzea**

**68. artikulua.** Baimen edo lizentziarik gabeko jarduerak legeztatzea.

1. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak jakiten duenean jarduera bat nahitaezkoa duen ingurumen-baimen integraturik edo ingurumen baimen bateraturik gabe ari dela, jarduera eteteko agindua eman dezake, hurrengo kapituluan xedatutakoaren arabera, eta, gainera, honako jarduketaren bat ere burutuko du:

a) Jarduera legeztatzerik badago, titularrari egoera erregularizatzeko aginduko dio, kasuan-kasuan aplikatzekoa den ingurumen arloko eskuhartzerako prozeduraren bidez, eta epe bat emanen dio prozedura horri ekiteko, hiru hilabeteko epean, gehienez ere, behar bezala justifikatutako salbuespeneko kasuetan izan ezik.

b) Jarduera baimentzerik ez badago, aplikatzekoa zaion indarreko araudia urratzen duelako, behin betiko itxiko da, aurretiaz interesdunari entzunda.

2. Eskatzekoa izan arren, jarduera sailkaturako lizentziarik gabe ari diren jardueren kasuan, jarduera kokatuta dagoen toki entitateak bideratuko ditu aurreko apartatuan hizpide diren jarduketak; bestela, Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunek bideratuko dituzte, jarduera sailkaturako lizentzia eman aurreko txostena egin badute.

3. Eskatzekoa izan arren, ingurumen-inpaktua adierazpenik edo ingurumen-ukipenen txostenik gabe ari diren jardueren kasuan, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak jardueraren funtzionamendua legeztatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatuko dio

organo substantiboari, jarduera ingurumen-inpaktua edo ingurumen-ukipenen ebaluazioaren menpe jarritz eta, behar izanez gero, onespen edo baimen substantiboa berrikusiz.

**69. artikulua.** Kautela-neurriak.

1. Titulu honetan aurreikusitako neurrien bidez ingurumen arloko egoera legezkotasunera lehengoratzea lortzeko, administrazio publiko eskudunak beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartzen ahalko ditu.

2. Zehazki, administrazio publiko jarduleak ur edo energia elektrikoaren horniketa eragotzi edo etenen du bertan behera uzteko edo ixteko agindua jaso duten jarduera, instalazio eta obretarako. Horretarako, ura edo elektrizitatea banatzen duten enpresei administrazioaren ebazpena jakinaraziko zaie, eta enpresek agindu hori gehienez ere bost eguneko epean bete beharko dute. Ur edo energia elektrikoaren horniketaren etenari amaiera emateko, lehenik eta behin instalazioa edo jarduera legeztatu beharko da, edo neurri zuzentzaileak hartu, administrazio publiko jarduleak enpresa hornitzaileei hala gertatu dela espresuki jakinarazita.

3. Administrazio publiko jarduleek jardueren titularrei eskatzen ahalko diete ezarritako kautelazko neurrien eragingarritasuna bermatuko duen fidantza. Fidantza horien baldintzak erregelamenduz finkatuko dira.

**II. KAPITULUA****Ziurtatzeko eta zuzentzeko neurriak eta aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko betebeharra****70. artikulua.** Ziurtatzeko neurriak.

Ingurumenaren arloko legeria sektorialean xedatutakoa galarazi gabe, foru lege honetan aurreikusitako ingurumen-baimenak edo jarduera sailkaturako lizentziak emateko, fidantza bat jartzeko eskatzen ahalko da, edo jardueraren titularrak baimendutako jarduera edo instalazioak eragin litzakeen kalteak konpondu edo gutxituko dituen erantzukizun zibileko derrigorrezko aseguru bat sinatzea, ematen dituen departamentuak behar bezala arrazoituta.

**71. artikulua.** Neurri zuzentzaileak ezartzea.

1. Hutsunerik baldin badago ingurumen-baimen integratua edo ingurumen-baimen bateratua behar duten jardueretan, baita ingurumen-inpaktua edo ingurumen-ukipenen ebaluazioa behar duten proiektuen exekuzioan ere, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak titularrari eskatuko dio akats horiek zuzentzeko, betiere

hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzeko arrazoizkoa den epean. Epe hori ez da sei hilabetekoa izanen da gehienez, behar bezala arrazoitako kasu berezietan salbu.

2. Jarduera sailkatuen kasuan, toki entitateari dagokio akatsak zuzentzeko agindua ematea aurreko apartatuan ezarritako moduan.

#### **72. artikulua.** Jarduerak etetea.

Bai organo substantiboak (ingurumen-inpaktuaren edo ingurumen-ukipenen ebaluazioen kasuan), bai ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak (ingurumen-baimen integratuen eta ingurumen-baimen bateratuen kasuetan) eta bai toki entitateek (jarduera sailkatuen kasuan) agindua ematen ahalko dute ingurumen esku-hartzearen menpe jarritako edozein proiektu, instalazio edo jarduera geldiarazteko –betiere prebentzio neurri gisa eta interesdunei entzun ondoren–, hori eraikitzen nahiz ustiatzen ari denean, osorik zein partzialki, honako arrazoi hauengatik:

a) Plan, proiektu, instalazio zein jarduerari ekin zaiolako ingurumen-baimen integraturik gabe, ingurumen-baimen bateraturik gabe, ingurumen adierazpen estrategikorik gabe, ingurumen-inpaktuaren adierazpenik edo ingurumen-ukipenen txostenik gabe, jarduera sailkaturako lizentziarik gabe edo erantzukizunpeko adierazpenik gabe.

b) Datuak ezkutatu, faltsutu edo maltzurki erabili direlako ingurumen arloko esku-hartzea egiteko prozeduran.

c) Plana, proiektua, instalazioa edo jarduera betearazteko ezarritako ingurumen-baldintzak ez-betetzea edo haustea.

**73. artikulua.** Jarduerak eta instalazioak berehala etetea.

Ingurumenerako kalte larriak edo konponeziak gertatzeko arriskua denean edo pertsonen osasunarentzako berehalako arriskua denean, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak, toki entitateak edo organo substantiboak berehala geldiaraziko du jardueraren garapena edo jarduna bera, betiere arazoituta eta txosten teknikoetan oinarrituta. Jarduera geldituta egonen da arriskuaren arrazoiak desagertu arte, eta behar diren neurriak hartzen ahalko dira aipatu arriskuak egiaztatzeko edo murrizteko.

**74. artikulua.** Neurri zuzentzaileak nahitaez betearaztea.

Ingurumen arloko esku-hartzea behar dutenetakoa izanik funtzionamenduan, aldi baterako etetean nahiz behin betiko itxita dagoen jarduera baten titularrak ez badu neurri zuzentzailearen bat

hartu nahi, ekintza hori eskatu duen administrazio publikoak, aurretiaz ohartarazita, zilegi izanen du hori subsidiarioki gauzatzea erantzulearen kargura. Egintza subsidiario horren ondoriozko gastuen ordaina premiamendu-bidetik eskatzen ahalko du.

**75. artikulua.** Aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko eta egindako kalteen ordaina emateko betebeharra.

1. Plan edo proiektuaren exekuzioak edo jardueran aritzeak ingurumenari kalte egiten diotenean edo errealitate fisikoan edo biologikoan baimendu gabeko aldaketa bat eragiten dutenean, sustatzaileak nahiz titularrak aldatutako errealitate fisiko edo biologikoa lehengoratu beharko du, edo horren pareko ondorioak dituzten neurri kitzatzaileak gauzatu eta, bidezkoa bada, kalte-ordaina ordaindu, ingurumenari eragindako kalte eta galeregatik, kasuan-kasuan bidezkoak liratekeen zigor zein administrazio zehapenak galarazi gabe.

2. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak aldatutako errealitate fisiko edo biologikoa lehengoratzeko edo horren pareko ondorioak dituzten konpentsazio neurriak gauzatzeko modua eta beharrezko jarduketak zehaztuko ditu, eragiketak hasi eta amaitzeko epeak finkatuz eta, behar izanez gero, dagokion kalte-ordaina emateko epea zehaztuz.

3. Lehengoratu edo konpontzeko betebeharra gauzatzeko jarritako epeak amaitu ondoren hura bete gabe baldin badago, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak bata bestearen atzetik hertsapenezko hamabi isuneraino jartzea erabakitzen ahalko du, hilabetero, eta 600 eurotik 6.000 eurora bitartekoak, aurreikusitako neurriak nolakoak diren, horrela.

4. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak halaber jarduketak subsidiarioki erantzulearen kontura egiten ahalko ditu, erantzuleak jarduketa horiek epe ezarrietan egin ezean.

5. Eragindako kalte eta galeren ordaina, baita betearazpen subsidiarioaren gastuak ere, premiamendu-bidetik eskatzen ahalko dira.

6. Artikulu honek hizpide dituen lehengoratzeko eta kalte-ordainen betebeharrak zehazten ahalko dira jarduerak legeztatze prozeduran, zehapen prozeduran edo erregelamenduz ezartzen den berariazko prozeduraren bidez. Erabaki hori kalteak eragiten direnetik hamabost urteko epean hartzen ahalko da, kalteek jabari publikoko ondasunak edo babes bereziko eremuak ukitzen dituztenean izan ezik, halakoetan akzioa preskribazina izanen baita.

7. Jarduera sailkaturako lizentzia behar duten jardueren kasuan, lizentzia eman duen toki entitateari dagokio lehengoratzeko edo kalte-ordaina emateko betebeharra.

### III. KAPITULUA Ingurumen arloko diziplina

**76. artikulua.** Arau-hausteen subjektu erantzuleak.

1. Titulu honetan jasotako arau-hauste administratibo diren egitateengatik zehatzen ahalko dira plan, programa eta proiektuen sustatzaileak edo instalazio edo jardueren titularrak, edo horiek aurrera eramaten dituzten pertsonak, baldin eta pertsona fisiko edo juridiko pribatuaren izaera badute eta horien erantzule badira.

2. Legezko betebeharrak bat betetzea pertsona bati baino gehiagori badagokio, solidarioki erantzun beharko dute egiten dituzten arau-hausteenegatik eta ezartzen zaizkien zehapenengatik.

3. Pertsona fisiko edo juridiko batek berak arau-hauste bat baino gehiagotzat jo daitezkeen zenbait ekintza egin baditu, eginiko arau-hausteak adina zehapen ezarriko dira. Baldin eta egitate berengatik arau-hauste batzuk ondorioztatzen badira, horietako astunenaren zehapena jarriko da, goiko erdian. Baldin eta egitate batzuk arau-haustetzat hartzen badira tresna edo baliabide izan direlako arau-haustetzat hartzen diren beste batzuk egiteko, eta, horrenbestez, batzuk bestearen ezinbesteko ondorio direnean, egindako arau-hauste astunenari dagokion zehapena jarriko da, goiko erdian.

### IV. KAPITULUA Arau-hauste eta zehapenak

**77. artikulua.** Arau-hausteak.

Legeria sektorialak ezartzen dituen arau-hausteak galarazi gabe, arau-hauste administratibotzat hartuko dira foru lege honen aurka egiten duten ekintzak eta ez-egiteak

#### 1. atala Kutsaduraren prebentzioa eta kontrol integratuen eta ingurumen-ebaluazioaren arloko arau-hausteak eta zehapenak

**78. artikulua.** Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen arloko arau-hausteak eta zehapenak.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen arloan, arau-haustetzat jotzen dira Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuei

buruzko Legearen testu bateginean edo horren ordezkotza araudian hala ezarritakoak. Testu bategin hori abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.

Aplikatu beharreko indarreko araudiak zehaztuko ditu jartzen ahalko diren zehapenak.

**79. artikulua.** Ingurumen-ebaluazioaren arloko arau-hausteak eta zehapenak.

Ingurumen ebaluazioaren arloan, arau-haustetzat jotzen dira ingurumen ebaluazioaren arloan indarrean dagoen araudian hala ezarritakoak.

Aipatu araudiak zehaztuko ditu jartzen ahalko diren zehapenak.

#### 2. atala Arau-hausteak eta zehapenak, ingurumen-baimen bateratua behar duten jardueren arlokoak

**80. artikulua.** Arau-hausteak, ingurumen-baimen bateratua behar duten jardueren arlokoak.

1. Arau-hauste oso astunak honakoak dira:

a) Nahitaezko ingurumen-baimen bateratua ez izanik, jardueran aritzea edo bertan edo instalazioetan funtsezko aldaketak egitea, betiere kalte edo hondatze larria eragin bada ingurumenean edo pertsonen segurtasuna edo osasuna arrisku larrian jarri bada.

b) Jarduera aldi baterako zein behin betiko eten zein ixtea agintzen duten administrazio ebazpenak, ezarritako neurri zuzentzaileak eta, era berean, aldatutako ingurumena lehengoratu edo konpontzeko aginduak ez betetzea.

2. Arau-hauste astunak honako hauek dira:

a) Nahitaezko ingurumen-baimen bateratua ez izanik, jardueran aritzea edo bertan edo instalazioetan funtsezko aldaketak egitea, betiere kalterik edo hondatze larrikeria eragin ez bada ingurumenean.

b) Ingurumen-baimen bateratua ezarritako baldintzak ez betetzea, baldin eta kalte edo hondatze larria eragin bada ingurumenean.

c) Hasitako zehapen prozedura baten ondorioz ezarritako behin-behineko eta kautelazko neurriek ekartzen dituzten betebeharrak ez betetzea.

d) Ingurumen-baimen bateratuaren edozein baldintza betetzen ez bada, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuari berehala ez jakinaraztea, barnean sartzeko direlarik ingurumenari nabarmen eragiten dioten gorabeherak eta istripuak.



e) Foru lege honetan araututako prozedura eta bitarteko desberdinetan eskatzen den informazioa ezkutatu, aldatu edo faltsutzea.

f) Ikuskapena edo kontrola galaraztea, atzeratzea edo oztopatzea, bereziki instalazioan sartzen ez uztea.

g) Instalazio bat behin betiko ixtea ingurumen-baimen bateratuan ezarritako baldintzak bete gabe.

3. Arau-hauste arinak honako hauek dira:

a) Ingurumen-baimen bateratuan ezarritako baldintzak ez betetzea, kalterik edo hondatze larri-rik eragin ez bada ingurumenean, eta, istripu edo gorabehera gehiagorik gerta ez dadin, ahal bezain laster berriz betetzen dela ziurtatzeko behar diren neurriak ez hartzea.

b) Instalazioan egindako aldaketa ez-funtsezkoen berri ez ematea ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuari.

c) Justifikatu gabeko atzerapena gertatzea abian jartzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztean, edo Administrazioak –ikuskapen eta kontrol lanetan dagoela– eskatutako agiriak aurkeztean.

d) Foru lege honetan zein horren arabera onetsitako arauetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, arau-hauste astun zein oso astuntzat tipifikatuta ez badago.

e) Ingurumen-baimen bateratuaren edozein baldintza betetzen ez bada, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuari berehala ez jakinaraztea, barnean sartzen direlarik instalazioan gertatutako gorabeherak edo istripuak.

**81. artikulua.** Ingurumen-baimen bateratua behar duten jardueren zehapenak.

1. Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteeek honako zehapen guztiak edo batzuk ekartzen ahalko dituzte:

a) Arau-hauste oso astunak direnean:

1) 100.001 eurotik 1.000.000 eurorainoko isuna.

2) Instalazioak ixtea, behin betiko, erabat edo partzialki.

3) Instalazioak ixtea, aldi batez –gutxienez bi urtez eta gehienez bost urtez–, erabat edo partzialki.

4) Jardueran aritzeko desgaitzea, gutxienez urtebeterako eta gehienez bi urterako.

5) Baimena kentzea edo bertan behera uztea, gutxienez urtebeterako eta gehienez 5 urterako.

6) Argitaratzea, egokitzat jotzen diren bideak erabiliz, ezarritako zehapenak, behin horiek bide administratiboan edo, kasua bada, jurisdikzionalen irmo bilakatu direnean; halaber, erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo helbidea argitaratzea, bai eta arau-hausteen mota eta izaera ere.

b) Arau-hauste astunak direnean:

1) 15.001 eurotik 100.000 eurorainoko isuna.

2) Instalazioak ixtea, aldi batez –gehienez bi urtez–, erabat edo partzialki.

3) Jardueran aritzeko desgaitzea, gehienez urtebetez.

4) Baimena kentzea edo bertan behera uztea, gehienez urtebetez.

5) Organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen neurri osagarriak betetzeko behartzea, neurri horien helburua izanik ingurumen-baimen integratuaren baldintzak betetzen direla bermatzea, gorabehera edo istripu gehiago gerta ez daitezen.

c) Arau-hauste arinak direnean:

1) 15.000 eurorainoko isuna.

2) Instalazioak ixtea, aldi batez –gehienez 6 hilabetez–, erabat edo partzialki.

2. Arau-hauste oso astuna egiteagatik zehapen irmo bat ezartzeak berarekin ekarriko du, hiru urterako, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak jasotzeko eskubidea galtzea.

3. Isunaren zenbatekoa arau-haustea egiteagatik lortutako mozkin baina gutxiago denean, zehapena handitzen ahalko da, arau-hausleak ateratako mozkinaren zenbatekoaren hiru halako gehienez.

### 3. atala

#### Ingurumen-ukipenen ebaluazioa behar duten proiektuen arloko arau-hausteak eta zehapenak

**82. artikulua.** Ingurumen-ukipenen ebaluazioa behar duten jardueren arau-hausteak.

1. Arau-hauste oso astunak honakoak dira:

a) Proiektu bat edo alde aurretik gauzatutako proiektu baten aldaketa bat gauzatzea, ingurumen-ukipenen nahitaezko txostenik gabe, betiere ingurumenari kalte edo narriadura larria eragin bazaio.

b) Hondatutako ingurumena lehengoratzeko eta berrezartzeko agintzen duten administrazio-ebazpenak ez betetzea.

2. Arau-hauste astunak honako hauek dira:

a) Proiektu bat edo aldez aurretik gauzaturako proiektu baten aldaketa bat gauzatzeko hastea, ingurumen-ukipenen nahitaezko txostenik gabe, betiere ingurumenari kalte edo narriadura larria eragin ez bazaio.

b) Datuak ezkatatu, faltsutu edo maltzurki erabili direlako ingurumen-ukipenak ebaluatzen prozedura.

c) Ingurumen-baldintzak edo ingurumen-ukipenen txostenean ezarritako neurri zuzentzaileak edo konpentsaziozkoak ez betetzea, baldin eta proiektua onartzen edo baimentzen duen ebazpenean jasota badaude, eta ingurumenean kalte edo narriadura larria eragin bada.

d) Hasitako zehapen prozedura baten ondorioz ezarritako behin-behineko eta kautelazko neurriek ekartzen dituzten betebeharrak ez betetzea.

e) Ingurumenari nabarmen eragiten dion edozein gorabehera edo istripuren berri berehala ez ematea ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuari.

3. Arau-hauste arinak honako hauek dira:

a) Ingurumen-baldintzak edo ingurumen-ukipenen txostenean ezarritako neurri zuzentzaileak edo konpentsaziozkoak ez betetzea, baldin eta proiektua onartzen edo baimentzen duen ebazpenean jasota badaude, eta ingurumenean kalte edo narriadura larria eragin ez bada.

b) Foru lege honetan zein horren arabera onetsitako arauetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, arau-hauste astun zein oso astuntzat tipifikatuta ez badaude.

**83. artikulua.** Zehapen-ahalmena.

Proiektuak baimentzeko eskumena duen organo substantiboak izango du zehatzeko ahala.

**84. artikulua.** Ingurumen-ukipenen ebaluazioa behar duten jardueren zehapenak.

1. Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteez honako zehapen guztiak edo batzuk ekartzen ahalko dituzte:

a) Arau-hauste oso astunak direnean:

1) 100.001 eurotik 1.000.000 eurorainoko isuna.

2) Instalazioak ixtea, behin betiko, erabat edo partzialki.

3) Instalazioak ixtea, aldi batez –gutxienez bi urtez eta gehienez bost urtez–, erabat edo partzialki.

4) Baimena kentzea edo bertan behera uztea, gutxienez urtebeterako eta gehienez 5 urterako.

5) Argitaratzea, egokitzat jotzen diren bideak erabiliz, ezarritako zehapenak, behin horiek bide administratiboan edo, kasua bada, jurisdikzionalen irimo bilakatu direnean; halaber, erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo helbidea argitaratzea, bai eta arau-hausteen mota eta izaera ere.

b) Arau-hauste astunak direnean:

1) 15.001 eurotik 100.000 eurorainoko isuna.

2) Instalazioak ixtea, aldi batez –gehienez bi urtez–, erabat edo partzialki.

3) Baimena kentzea edo bertan behera uztea, gehienez urtebetez.

4) Organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen neurri osagarriak betetzeko behartzea, neurri horien helburua izanik ingurumen-baimen integratuaren baldintzak betetzen direla bermatzea, gorabehera edo istripu gehiago gerta ez daitezen.

c) Arau-hauste arinak direnean:

1) 15.000 eurorainoko isuna.

2) Instalazioak ixtea, aldi batez –gehienez 6 hilabetez–, erabat edo partzialki.

2. Isunaren zenbatekoa arau-haustea egiteagatik lortutako mozkin baina gutxiago denean, zehapena handitzen ahalko da, arau-haustea ateratako mozkinaren zenbatekoaren hiru halako gehienez.

#### 4. atala

##### Arau-haustek eta zehapenak jarduera sailkaturako lizentzien arloan

**85. artikulua.** Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jardueren arau-haustek.

1. Arau-hauste oso astuntzat hartzen da jarduerak ezartzea, ustiatzea, lekualdatzea edo funtsezko aldaketa egitea obretan, jardueretan edo proiektuaren exekuzioan, jarduera sailkaturako nahitaezko lizentzia izan gabe.

2. Arau-hauste astunak honako hauek dira:

a) Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak abian jartzea, lizentzia hori eduki gabe.

b) Jarduera sailkaturako lizentzian ezarritako baldintzak ez betetzea, kalteak edo hondatzea eragin badira ingurumenean.

c) Eteteko edo ixteko aginduak edo neurri zuzentzaile eta babesle osagarriak ez betetzea.

d) Datuak faltsutzea, ezkutatzea edo maltzurki manipulatzeko jarduera sailkaturako lizentzia emateko prozedura.

e) Ikuskapena edo kontrola galaraztea, atzera-etea edo oztopatzea, bereziki instalazioan sartzen ez uztea.

3. Arau-hauste arinak honako hauek dira:

a) Jarduera sailkaturako lizentziaren titulartasuna eskualdatzea, lizentzia eman zuen toki entitateari jakinarazi gabe.

b) Jarduera sailkaturako lizentzian ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea, ez-betetze hori arina denean.

c) Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak abian jartzea, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe.

**86. artikulua.** Jarduera sailkaturako lizentzia behar duten jardueren zehapenak.

1. Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteeek honako zehapen guztiak edo batzuk ekartzen ahalko dituzte:

a) Arau-hauste oso astunak direnean:

1) 75.001 eurotik 150.000 eurorainoko isuna.

2) Instalazioak ixtea, behin betiko, erabat edo partzialki.

3) Instalazioak ixtea, aldi batez –gutxienez urtebetez eta gehienez 3 urtez–, erabat edo partzialki.

4) Jardueran aritzeko desgaitzea, gutxienez urtebeterako eta gehienez bi urterako.

5) Lizentzia kentzea edo bertan behera uztea, gutxienez urtebetez eta gehienez hiru urtez.

b) Arau-hauste astunak direnean:

1) 30.001 eurotik 75.000 eurorainoko isuna.

2) Instalazioak ixtea, aldi batez –gehienez urtebetez–, erabat edo partzialki.

3) Jardueran aritzeko desgaitzea, gehienez urtebetez.

4) Lizentzia kentzea edo bertan behera uztea, gehienez urtebetez.

c) Arau-hauste arinak direnean:

1) 30.000 eurorainoko isuna.

2) Instalazioak ixtea, aldi batez –gehienez 6 hilabetez–, erabat edo partzialki.

2. Isunaren zenbatekoa arau-haustea egiteagatik lortutako mozkin baina txikiagoa denean, zehapena handituko da, arau-haustea lortutako mozkinaren zenbatekoaren hiru halako gehienez.

## 5. atala

### Arau-hauste eta zehapen guztietarako xedapenak

**87. artikulua.** Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1. Arau-hausteak honako epe hauetan preskribatuko dira:

a) Arau-hauste oso astunak bost urteren buruan.

b) Arau-hauste astunak hiru urteren buruan.

c) Arau-hauste arinak urtebeteren buruan.

Arau-hausteen preskripzio-epea zenbatzen hasiko da arau-haustea egin den egunetik. Arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, berriz, jokabide arau-haustea bukatzearekin batera hasiko da epea zenbatzen, kasua bada.

2. Zehapenak preskribatzeko epeak, zehapena jartzeko ebazpena irmo bilakatu eta biharamunetik zenbatzen hastekoak direnak, honako hauek izanen dira:

a) Arau-hauste oso astunak bost urteren buruan.

b) Arau-hauste astunak hiru urteren buruan.

c) Zehapen arinak urtebeteren buruan.

**88. artikulua.** Zehapenen mailaketa.

1. Zehapenak jartzeko orduan arau-haustearen larritasunaren eta aplikatutako zehapenaren arteko beharrezko egokitasuna zainduko da, eta honako irizpideei bereziki adituko zaie zehapenaren mailaketa finkatzeko:

a) Arau-haustea egiteko asmorik zegoen ala ez.

b) Arau-hauste bat baina gehiago egin izana, ebazpen sendoz hala erabaki denean.

c) Foru lege honetan tipifikatutako izaera bereko arau-hauste bat baina gehiago egiteagatik berrerorlea izatea, ebazpen sendoz hala erabaki denean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo lau urteetan.

d) Ingurumenari zein pertsonen osasunari eragindako kalteak, edo haien segurtasunerako sortutako arriskua.

e) Arau-haustea eginez lortutako mozkin.

f) Arau-hauslearen ahalmen ekonomikoa.

g) Aringarri modura, zehapen-espeditentea abiarazi baino lehen, arau-haustetzat jotako jarduera jakin baten ondorioz ingurumenari eragindako ondorio kaltegarriak gutxitu edo konpontzen dituzten neurri zuzentzaileak hartzea.

2. Isurien muga-balioen gainditzea zuzentzeko neurriak hartzetik eratorritako kostua ez da kon-tuan hartuko zehapena gutxitzeko.

**89. artikulua.** Zehapenak pilatzea.

1. Egitate eta oinarri juridiko berberak izanda, arau-hausleari zehapena ezartzen ahal bazaio foru lege honi eta aplikatzekoa litzatekeen beste lege bati edo batzuei jarraikiz, honako arau hauek aintzat hartuz ezarriko dira zehapenak:

a) Lehentasunez aplikatuko da araudi sektorialean jasotako agindu berezia, betetzeko eta/edo baimentzeko betebeharra ezartzen duena.

b) Agindu zabalena edo konplexuena bere baitan hartuko du hartan dauden arau-haustek zehatzen dituen.

c) Aurreko irizpideak aplikatu ezin direnean, agindu larrienak bazter utziko ditu zehapen txikiagoa ezartzen dutenak.

2. Ezin izanen dira zehatu zigor edo adminis-trazio arloko zehapena jaso duten egitateak, baldin eta subjektua, egitatea eta oinarria berberak direla jotzen bada.

3. Egitateak delitu edo falta izan daitezkeenean, zehapen prozedura administratiboa hasi, eta Fiskaltzari igorriko zaio, eta une horretantxe eten egingen da zehapen prozeduraren tramitazioa. Agintari judizialak prozedurari amaiera ematen dion ebazpen irmoa ematen duenean, non jarduketak largestea edo artxibatzea deklaritzen baita, edo Fiskaltzak espeditentea itzultzen duenean deil-turik edo faltarik ikusi gabe, organo administratibo eskudunak berriz abiatuko du zehapen-espeditentea. Ebazpen judizial irmoan frogatutzat deklaritzen diren egitateak administrazio-organorentzat lotesleak izanen dira erabaki judizialaren ondotik kasua bada egingen duen prozeduran.

**90. artikulua.** Ukitutako ingurumena lehengoratzeko betebeharra.

1. Zehapen penal eta administratiboak galarazi gabe, kaltetutako ingurumena lehengoratzera eta konpontzera behartuta dago arau-hauslea. Ahal denean, arau-haustea egin baino lehenagoko egoerara bueltatuko du eta, hala badagokio, eragindako kalte-galeren ordaina pagatuko. Eragindako

kalte-galeren ordaina bide administratiboan zehaztu eta eskuratuko da.

2. Halaber, arau honetan aurreikusitako arau-hauste bat dela-eta ingurumen kaltea eragiten bada, Ingurumen arloko Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean ezarritakoari jarraikiz jokatu da, edo, hala badagokio, horretarako ematen den araudiari jarraikiz.

**91. artikulua.** Zehapenen publizitatea eta arau-hausleen erregistroa.

1. Arau-hauste astunak edo oso astunak egite-agatik ezartzen diren zehapen irmoak bide ofizial egokien bidez argitaratuko dira.

2. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak erregistro publiko bat sortuko du, Nafarroako Foru Komunitateko ingurumen arloko arau-hausleena, non Nafarroako Gobernuaren ebazpen irmoz zehatutako pertsona fisiko zein juridikoak inskribatuko diren.

**92. artikulua.** Ingurumen arloko ordezkio zerbitzua.

Behin zehapen prozedura hasita, arau-hauste astun eta arinen kasuan, ustezko erantzulea den pertsonak aukera izanen du, isun gisako zehapenaren ordezkio, ingurumenari onura ekarriko dion ingurumen arloko lehengoratzeko, kontserbazio edo hobekuntza zerbitzu bat egitea eskatzeko, zehapena jartzeko eskumena duen organoak ezartzen dituen baldintza eta moduekin.

Halaber, zehapen prozedura amaitu ondoren, bidezko izanen da eskatzea isun-zehapenaren ordezkio ingurumen arloko zerbitzu bat egiteko aukera, baina hori eskatu ahalko da soilik zehapena falta astun edo arin batengatik izan bada.

## 6. atala Zehapen prozedura

**93. artikulua.** Prozedura.

Behar den prozedura instruituko da zehapenak jartzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoarekin bat.

**94. artikulua.** Prozedura iraungitzea.

1. Zehapen prozeduran ebazpena emateko eta jakinarazteko epea urtebetekoa izanen da gehienez, espeditentea hasteko administrazio ebazpena ematen den egunetik hasita.

2. Ebazteko eskumena duen organoak, behar bezala justifikaturiko arrazoiren bat tarteko, zilegi

izanen du administrazio-ebazpen arrazoitu bidez erabakitzea luza dadila aplikatu beharreko gehieneko epea. Luzapenak, gehienez, hasieran ezarritako epearen erdia iraunen du.

**95. artikulua.** Behin-behineko neurriak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako edozein arau-hausterengatik zehapen prozedura abiatu denean, zehapena ezartzeko organo eskudunak, besteak beste, honako behin-behineko neurrietako bat edo gehiago hartzea erabakitzen ahalko du:

- a) Arriskua edo kaltea eragiten jarraitzea eragozteko zuzenketa, segurtasun edo kontrol neurriak.
- b) Aparatu zein ekipoak prezintatzea.
- c) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea.
- d) Instalazioak gelditzea.
- e) Jarduerak etetea.
- f) Proiektuaren exekuzioa etetea.

2. Aurreko apartatuan aipatutako neurriak zehapen prozedura administratiboa hasi baino lehen adosten ahalko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko araudian ezarritako baldintzetan.

**96. artikulua.** Zehapen-ahalmena.

1. Nafarroako Gobernuak izanen du zehapen-ahalmena, arau-hausteak halako jarduera edo instalazioekin loturikoak direnean non ingurumen-eraginaren edo ingurumen-inpaktuaren adierazpena, ingurumen-baimen integratua edo ingurumen-baimen bateratua eta ingurumen-ukipenen txostena behar baitituzte.

2. Arau-hausteak gertatzen badira jarduera sailkaturako lizentzia behar duten jarduerekin loturik, toki entitateek izanen dute zehatzeko ahalmena, zeinek bere eskumenen arabera.

**97. artikulua.** Organo eskudunak.

1. Foru lege honetan araututako arau-haustengatik zehatzeko ahalmena Nafarroako Gobernuaren eskumena denean, honako hauei egokituzaie zehapen prozedurak ebaztea:

- a) Organo substantiboaren edo ingurumen-organoren zuzendaritza nagusia duen pertsonari, dagokionaren arabera, arau-hauste arinak edo astunak direnean.
- b) Arau-hauste oso larriak badira, ingurumen arloko eskumenak dituen departamentuko titularrari.

c) Dena dela, 600.000 euro baino gehiagoko isuna dakarten arau-hauste oso astunak direnean, eskumena Nafarroako Gobernuarena izanen da.

2. Zehatzeko ahalmena toki entitateen eskumenekoa bada, tokiko araudian ezartzen den organo eskudunak izanen du zehatzeko eskumena.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Tasak, baimen eta txostenengatik.

Tasak sortuko dituzte foru lege honen xede diren jarduerak abian eta funtzionamenduan jartzeko baimenek, Nafarroako Gobernuak edo toki entitateek emandakoek, baita baimena lortzeko beharrezkoak diren txostenek ere. Tasa horiek dagokion araudian ezarriko dira.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Nafarroako airearen kalitatearen sareari eusten laguntzea.

Atalase kuantitatibo jakin batzuk gaindituz atmosferako kutsatzaileen isuriak egiten dituzten industria-instalazioek Nafarroako airearen kalitatea kontrolatzeko sareari eusten lagundu beharko dute, beren isuriek Nafarroa osoko isuriekin alderatuta duten garrantziarekiko proportzioan. Lankidetzarako atalaseak eta formulak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Udal-mugar-te bat baino gehiago ukitzen dituzten jarduerak eta proiektuak eta Nafarroako mugetatik kanpo kokatuta daudenak.

Jarduera eta proiektuek Nafarroako Foru Komunitatearen mugakide diren autonomia-erkidegoen lurralde-zati bat edo udalerrri bakar bat baino gehiago barne hartzen duen lurralde-azarpena aurreikusten badute, kasuan kasuko baimenak edo lizentziak lortu beharko dituzte ukitutako entitate bakoitzarengandik, salbu eta administrazio eskudunen artean nahitaezko administratio-tramitatzea sinplifikatzeko akordiorik badago.

Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuaren baimena behar duten jardueren kasuan, proiektu osoari emanen zaio baimena, ukitutako gainerako lurralde entitateen txostena jaso ondoren.

Jarduera sailkaturako lizentzia behar duten jardueren kasuan, proiektu osoa aurkeztuko da kasuko toki entitatean, hori tramitatzeko eta jarduera sailkaturako lizentzia lortzeko, toki entitate bakoitzak emanda.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Lankidetzaren teknikoak toki entitateekin, jarduera sailkaturako lizentzia eman baino lehen.

Jarduera sailkaturako lizentzien kasuan, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak behar den laguntza teknikoak emanen die toki entitateei lizentzia horiek emateko eskumena erabil dezaten.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Ingurumen-baimen bateratua emateko eskuordetzea.

Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak eskuordetzen ahalko die, zerbitzu tekniko egokiak dituzten toki entitateei, ingurumen-baimen bateratua emateko ahalmena, betiere toki entitate horiek eskatuta. Eskuordetzea egiteko egintza administratiboan zehaztuko dira, espresuki, zer jardueratarako erabiliko den, bai eta eskuordetzearen baldintzak eta funtzionamendu arauak ere.

**Seigarren xedapen gehigarria.** Uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 117. eta 118. artikulua aldatzea.

Aipatutako artikulua aldatzen dira, eta honako testu hau izanen dute:

“117. artikulua. Lurzoru urbanizazinean jarduera baimengarriak baimentzeko prozedura.

1. Lurzoru urbanizazinean jarduera eta erabilera baimengarrietarako baimenak emateko, honako prozedura honi jarraituko zaio:

a) Sustatzaileak kasuko eskaria aurkeztuko dio jarduera ezarriko edo garatuko den esparruko udal eskudunari; harekin batera, foru lege honen 119. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

b) Udalak jasotako eskaerari buruzko txostena gehituko dio espedienteari, non adieraziko baitu ea bat datorren udalaren hirigintza-planeamenduarekin, dauden eta aurreikusita dauden hirigintza-zerbitzuak nahikoak diren eta udal horretan dauden aurrekari administratiboak zein diren. Espedientea lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunari igorriko dio eskaera aurkeztu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igaro eta oraindik ez bazaio aipatu departamentuari dokumentazioa bidali, interesdunak zilegi izanen du baimena zuzenean eskatzea aipatutako departamentuan.

c) Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak ebatziko du eskatutako erabilera edo jar-

duera baimentzeari edo debekatzeari buruz, eta ebazpen hori udalari eta sustatzaileari igorriko die, eta, hala behar bada, baita kontzejuari ere, horren lurra ukitzen baditu. Baimena emateko ebazpenean, Nafarroako Gobernuak departamentuen eskumenekoak diren ukipen sektorialen balorazioa jaso beharko da, eta behar diren neurri zuzentzaileak ezartzen ahalko dira. Bi hilabete igarotzen badira lurralde antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunak udalari inongo egintzarik jakinarazi gabe, ulertuko da baimena ukatu egin dela.

2. Baimenak dimentsioen eta beharrezkoen arteko proportzionaltasunaren irizpidearen arabera emanen dira, eta aztertu beharko da, halaber, proposatutako eraikuntzaren tipologia egokia ote den garatu nahi den jarduerarako.

3. Jarduketa exekutatzeko edo abian jartzeko behar diren udal lizentziak ematen ahalko dira baimena eskuratu ondoren soilik. Lizentzia horietan, bidezkoak diren beste batzuen artean, aipatutako baimenean zehaztutako determinazioak jasoko dira, eta determinazio horiek betetzea eta beteaztea begiratuko dute.

4. Jardueraren exekuzioa edo abian jartzea baimena ematen denetik bi urteko epean gauzatu beharko da gehienez ere; epe hori amaituta, automatikoki agortuko dira baimenaren ondorioak, eta eraginkortasunik gabe geldituko da. Baimendutako jarduera amaitzeak berarekin ekarriko du jardueraren titularrak behartuta egonen dela jarduerak ukitutako lurra lehengoratzera, gehienez ere bost urteko epean, eraikinak eraitsiz edo kenduz”.

“118. artikulua. Prozedura berezia.

1. 117. artikuluko 1. puntuko a) eta b) apartatuetan aurreikusitakoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

a) Jarduerak edo erabilera hainbat udal-mugarteri eragiten dienean, eskaera zuzenean aurkeztu beharko zaio lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuari, zeinak ukitutako udalei jakinaraziko baitie.

b) Jarduerak edo erabilera ingurumen-baimena behar duenean, eta baimen hori ematea ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuari dagokionean; kasu horretan, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen foru legean aurreikusitako prozedura aplikatuko da.

c) Jarduera edo erabilera b) apartatuan sartuta ez dagoenean eta energiaren eta meategien arloan eskumena duen departamentuaren baimena behar duenean, departamentu horrek lurraldearen

antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuari helaraziko dio dokumentazio guztia, lurzoru urbanizaezinean baimengarriak diren jarduerak baimentzeko espedientea tramitatu dezan. Energian eta meategietan eskumena duen departamentuak ebazpena eman ahal izateko, lurzoru urbanizaezinean baimengarriak diren jarduerak egiteko baimena eman beharko du.

2. Aurreko puntuan aipatutako kasuetan, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuak 117.1.b) artikuluan aurreikusitako txostena eskatu beharko die ukitutako udalei, Lurzoru urbanizaezinean baimengarriak diren jarduerak baimentzeko espedientea ebatzi aurretik.

3. Jarduketak eta erabilerak udalez gaidiko plan edo proiektu sektorial baten xede diren kasuetan, ez da beharrezkoa izanen lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunaren baimena, salbu eta legedi sektorialean edo lurraldea antolatzeko tresnan bertan berariaz eskatzen bada.

4. Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskuduna eskudunak, toki entitateak eskatuta, ahalmena eman ahalko du aurreko artikuluan aurreikusitako baimenak emateko, betiere finkatzen diren jarraibideei jarraituz. Nolanahi ere, baimen horiek atzera botatzen ahalko dira”.

**Zazpigarren xedapen gehigarria.** Erregelamendu bidez garatzea.

Nafarroako Gobernuari gaikuntza ematen zaio foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege honen eranskinak aldatzeko, horiek Europar Batasuneko edo estatuko araudiaren bidez kasua bada eginiko aldaketetara egokitzeko.

**Lehen xedapen iragankorra.** Pertsonen osasunerako arriskutsuak diren jarduerak

Osasunaren arloko eskumena duen departamentuak pertsonen osasunerako arriskutsuak diren jardueretan esku hartzeko arau-esparrua garatu arte, edo foru lege hau garatzeko erregelamendua onetsi arte, foru lege honen aplikazio-esparruan hartutako jarduera guztiek nahitaezko txosten loteslea beharko dute, aipatu departamentuak eman beharrezkoa, betiere jarduera horiek pertsonen osasunerako arriskutsuak baldin badira honako honen arabera: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren abenduaren 23ko 448/2014 Foru Aginduaren III.

eranskina. Foru agindu horren bidez onetsi ziren abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretua garatzeko arauak, eta foru dekretu horrek onetsi zuen Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko erregelamendua, administrazioa bizkortzeko eta prozedurak errazteko arauak sartzeko asmoz, I. eranskinean jasota dagoen bezala.

Halaber, aurreko apartatuan aipatutako araugarapena egin arte, pertsonen osasunerako arriskutsuak diren eta ingurumen-baimen integratua edo ingurumen-baimen bateratua behar ez duten jarduerak jarduera sailkaturako lizentzia beharko dute.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Pertsonen segurtasunerako eta osotasunerako arriskutsuak diren eta babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuaren txostena behar duten jarduerak.

Pertsonen segurtasunerako arriskutsuak diren jarduerak erregelamendu bidez zehaztu arte, indarrean jarraituko du Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduaren –abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoaren– IV. eranskinean jasotakoak.

Halaber, aurreko apartatuan aipatutako araugarapena egin arte, pertsonen segurtasunerako arriskutsuak diren eta ingurumen-baimen integratua edo ingurumen-baimen bateratua behar ez duten jarduerak jarduera sailkaturako lizentzia beharko dute.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** Egun dauden instalazioak.

Foru lege honek indarra hartzen duenean ingurumen-baimen integratua edo jarduera sailkatuaren lizentzia duten eta 1. eranskinean sartuta dauden instalazioak arautuko dira foru lege honek ingurumen-baimen bateratuari buruz ezartzen duenari jarraikiz.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen bateraturako ezarritako araubideari atxikitzen zaizkion instalazioak identifikatuko dira.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

1. Indarrrik gabe uzten dira martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzkoa, eta foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, salbu eta foru lege honetako lehen eta bigarren xedapen iragankorretan ezarritakoa.

2. Halaber indargabetzen da ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretua, zeinaren bidez ezarri baitziren zaratak edo bibrazioak sorrarazten dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak, III. kapitulua (proiektuen edukiak) izan ezik, horrek indarrean jarraituko baitu harik eta bertan jasotako zertzeladak eraentzen dituen araudi berri bat onesten den arte. Oinarrizko legeriak zehaztuko

du zarataren arloan aplikatzekoa den araubide juridikoa.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik sei hilabetera.



**1. ERANSKINA**  
**INGURUMEN-BAIMEN BATERATUA BEHAR DUTEN**  
**PROIEKTUAK, INSTALAZIOAK, JARDUKETAK ETA JARDUERAK**

<b>1. TALDEA: ERREKUNTZA- ETA ENERGIA-INSTALAZIOAK</b>	
1.1	Industria batean dauden galdarak, lurrun-sorgailuak edo errekontzako beste edozein ekipamendu edo instalazio, salbu eta elektrizitate-sorkuntza edo -kogeneraziorako instalazioak, jarduera nagusia hori izan nahiz ez izan, potentzia termiko izendatua 5 MW edo gehiagokoa eta 50 MW baino gutxiagokoa dutenak.
1.2	Arbel bituminosoa gasifikatzeko edo likidotzeko instalazioak, 20 MW baino gutxiagoko potentzia termikoa dutenak, prozesamendu ahalmena edozein izanik ere.
1.3	Ikatz-ijezteko makinak, orduko 1 t-ko ahalmena edo handiagoa dutenak.
1.4	Ikatz-produktuak eta kerik sortzen ez duten erregai solidoak fabrikatzeko instalazioak.
<b>2. TALDEA: METALAK EKOITZI ETA ERALDATZEA</b>	
2.1	Burdinurtua edo altzairu gordinak ekoizteko instalazioak (burdin- edo altzairu-lingoteak, oinarrizko nahiz bigarren mailako fusioa), orduko 2,5 t-ko ahalmena edo txikiagoa duten galdaketa etengabeko instalazioei dagozkienak ere barne.
2.2	Beroan ijertuz burdinazko metalak eraldatzeko instalazioak, eguneko 20 t-ko ahalmena edo txikiagoa dutenak.
2.3	Mailuekin forjatuz burdinazko metalak eraldatzeko instalazioak, mailu bakoitzaren talka-energia 50 kJ edo txikiagoa denean edo erabilitako potentzia termikoa 20 MW edo txikiagoa denean; edo beste edozein forjaketa mota erabiltzen duten instalazioak.
2.4	Metal urtuzko babes-geruzak aplikatuz burdinazko metalak eraldatzeko instalazioak, orduko 2 t-ko tratamendu ahalmena edo txikiagoa dutenak.
2.5	Burdinazko metalen galdategiak, eguneko 20 t edo gutxiago ekoizteko ahalmena dutenak.
2.6	Berunaren edo kadmioaren fusiorako instalazioak, aleazioa ere barne, baita berreskuratutako produktuak eta bestelako prozesuak ere; eguneko fusio-ahalmena 4 t-koa edo txikiagoa dutenak.
2.7	Beruna edo kadmioa ez diren bestelako metalen fusiorako instalazioak, aleazioa ere barne, baita berreskuratutako produktuak eta bestelako prozesuak ere; eguneko ahalmena 20 t-koa edo txikiagoa dutenak.
2.8	Prozedura elektrolitiko edo kimikoen bidez metalen eta material plastikoen gainazalak tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabiltzen diren kubeta edo linea osoen bolumena 30 m <sup>3</sup> -koa edo txikiagoa eta 1 m <sup>3</sup> baino handiagoa denean.
2.9	Honako hauen bidez metalezko produktuak eraldatzeko lantegiak eta industriak, guztizko azalera eraikia 2.000 m <sup>2</sup> baino gehiagokoa dutenak: mozketa, mekanizazioa, trokelaketa, estanzazioa, enbutizioa, soldadura, moldaketa edo beste konformazio-eragiketa batzuk, salbu eta gainazal-tratamendu fisiko-kimikoa egiten denean bainu likido edo urtuetan.
<b>3. TALDEA: INDUSTRIA MINERALAK</b>	
3.1	Ehotze bidez zementua fabrikatzea, ekoizteko ahalmena eguneko 500 t edo txikiagoa denean.
3.2	Labe birakarietan klinkerra fabrikatzea, ekoizteko ahalmena eguneko 500 t edo txikiagoa denean.

3.3	Bestelako labeetan klinkerra fabrikatzea, ekoizteko ahalmena eguneko 500 t edo txikiagoa denean.
3.4	Labe birakarietan karea ekoiztea, ekoizteko ahalmena eguneko 50 t edo txikiagoa denean.
3.5	Bestelako labeetan karea fabrikatzea, ekoizteko ahalmena eguneko 50 t edo txikiagoa denean.
3.6	Labeetan magnesio oxidoa ekoiztea, ekoizteko ahalmena eguneko 50 t edo txikiagoa denean.
3.7	Beira fabrikatzeko instalazioak (beira-zuntza barne), fusio ahalmena eguneko 20 t edo txikiagoa denean.
3.8	Zeramikazko produktuak labean fabrikatzeko instalazioak, ekoizteko ahalmena eguneko 75 t baino handiagoa dutenak, edo laboratze ahalmena 4 m <sup>3</sup> koa edo txikiagoa dutenak, edo labe bakoitzeko karga-dentsitatea 300 kg/m <sup>3</sup> koa edo txikiagoa dutenak; bereziki, honakoak fabrikatzekoak: teilak, adreiluak, adreilu erregogorak, azulejuak, zeramika-gresa edo apainketarako nahiz etxeko erabilerarako zeramika-produktuak.
3.9	Igeltua labean fabrikatzeko instalazioak.
<b>4. TALDEA: INDUSTRIA KIMIKOA</b>	
4.1	Produktu piroteknikoak fabrikatzeko instalazioak.
4.2	Prozesu kimiko edo biologikorik gabe pestizidak ekoizteko industria-instalazioak.
4.3	Prozesu kimiko edo biologikorik gabe farmazia-produktuak fabrikatzea.
4.4	Prozesu kimiko edo biologikorik gabe honako hauek fabrikatzeko industria-instalazioak, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 200 t edo txikiagoa denean: estaldura-prestakinak, pinturak, bernizak, tintak eta itsasgarriak.
4.5	Prozesu kimiko edo biologikorik gabe elastomeroak ekoizteko eta elastomerozko produktuak fabrikatu eta tratatzeko industria-instalazioak.
4.6	Prozesu kimiko edo biologikorik gabe lixibak, detergenteak eta desinfektatzaileak ekoizteko industria instalazioak.
4.7	Tarteko produktuak eta produktu kimikoak tratatzeko industria instalazioak, aurreko kategorietan sartuta ez daudenak.
<b>5. TALDEA: HONDAKINEN KUDEAKETA</b>	
5.1	Hondakinen balorizaziora eta/edo ezabaketara bideraturiko instalazioak, ingurumen-baimen integraturik behar ez dutenak oinarrizko araudiari jarraikiz, honako hauek salbu: a) Eskalako konpostatzerako instalazioak. b) Arriskutsuak ez diren hondakinen balorizaziorako instalazioak, beste kategoria batzuetan sarturik ez daudenak, urteko tratamendu-ahalmena 50 t baino txikiagoa dutenak.
5.2	Hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzea, ahalmena guztira 50 t edo txikiagoa denean, salbu eta hondakina sortzen den tokian berean aldi baterako biltegitratzen bada, hondakinen bilketa egin artean. Hortik kanpo daude hondakinak biltzeko xedez toki entitateek kudeatzen dituzten garbiguneak eta aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinen plataforma logistikoak, sektoreko araudi indardunean definitu gisan.

5.3	Arriskutsuak ez diren hondakinak aldi baterako biltegitratzea (txatarrak barne), biltegitratze ahalmena guztira 100 t edo handiagoa denean, salbu eta hondakina sortzen den tokian berean aldi baterako biltegitratzen bada, hondakinen bilketa egin artean. Hortik kanpo daude hondakinak biltzeko xedez toki entitateek kudeatzen dituzten garbiguneak.
5.4	Txatarrak aldi baterako biltegitratzea, biltegitratze ahalmena guztira 100 t baino txikiagoa denean, salbu eta hondakina sortzen den tokian berean aldi baterako biltegitratzen bada, pabiloi baten kanpoaldean edo industrialde batetik kanpo, hondakinen bilketa egin artean.
5.5	Hondakin arriskutsuak lurpean biltegitratzea, ahalmena guztira 50 t edo txikiagoa denean.
5.6	Hondakin erradioaktiboak biltegitratzeko instalazioak, sarturik ez daudenak Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I. eranskinean.
<b>6. TALDEA: PAPERAREN, KARTOIAREN ETA ZUR-ERATORKINEN INDUSTRIIA</b>	
6.1	Papera edo kartoia fabrikatzeko industria-instalazioak, ekoizteko ahalmena eguneko 20 t edo txikiagoa dutenak.
6.2	Zelulosa ekoizteko instalazioak, ekoizteko ahalmena eguneko 20 t edo txikiagoa dutenak.
6.3	Honako hauek fabrikatzeko industria-instalazioak, ekoizteko ahalmena eguneko 600 m <sup>3</sup> koa edo txikiagoa dutenak: zur-txirbil orientatuzko taulak, aglomeratuzko taulak edo kartoi konprimituzko taulak.
6.4	Zelulosa tratatzeko instalazioak.
6.5	Zuraren eta plastikoaren ijezketa, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 5 t baino handiagoa eta 200 t edo txikiagoa denean.
<b>7. TALDEA: EHUNGINTZAKO ETA OINETAKOGINTZAKO INDUSTRIIA</b>	
7.1	Ehun-zuntzak edo ehungintzako produktuak aurretiaz tratatzeko (garbitzea, zuritzea, mertzerizatzea) edo tindatzeko instalazioak, tratamendu ahalmena eguneko 10 t edo txikiagoa dutenak.
7.2	Oinetakoak fabrikatzea, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 200 t edo txikiagoa denean.
<b>8. TALDEA: LARRUGINTZAKO INDUSTRIIA</b>	
8.1	Larruak ontzeko instalazioak, produktu amaituak tratatzeko ahalmena eguneko 12 t edo txikiagoa dutenak.
8.2	Larrua gainestaltzea, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 10 t baino handiagoa eta 200 t edo txikiagoa denean.
<b>9. TALDEA: NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIAK</b>	
9.1	Hiltegiak, kanal-ekoizte ahalmena eguneko 10 t baino handiagoa eta 50 t edo txikiagoa dutenak.
9.2	Animalietatik eratorritako lehengaien (esne hutsaz haragokoen) tratatze eta eraldatzea, ontziratze soilaz bestelakoa, lehengai horiek aurretiaz tratatuak izan nahiz ez, xedea elikagaiak edo pentsuak ekoiztea izanik, produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 30 t baino handiagoa eta 75 t edo txikiagoa denean.
9.3	Landareetatik eratorritako lehengaien tratatze eta eraldatzea, ontziratze soilaz bestelakoa, lehengai horiek aurretiaz tratatuak izan nahiz ez, xedea elikagaiak edo pentsuak ekoiztea izanik, produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 100 t baino handiagoa eta 300 t edo txikiagoa denean.

9.4	Landareetatik eratorritako lehengaien tratatze eta eraldatzea, ontziratze soilaz bestelakoa, lehengai horiek aurretiaz tratatuak izan nahiz ez, xedea izanik elikagaiak edo pentsuak ekoiztea, produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 200 t baino handiagoa eta 600 t edo txikiagoa denean, baldin eta instalazioak funtzionatzen badu 90 egun jarraitu baino gehiagokoa ez den epe batean, edozein urtetan.
9.5	Animalietatik eta landareetatik eratorritako lehengaien tratatze eta eraldatzea, ontziratze soilaz bestelakoa, lehengai horiek aurretiaz tratatuak izan nahiz ez, xedea izanik elikagaiak edo pentsuak ekoiztea, produktu konbinatuetan nahiz bereizirik, produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 75 t edo txikiagoa denean, baldin eta produktu amaituak ekoizteko ahalmenean animalia-gaien partea (pisuaren ehunekoan) 10 edo gehiagokoa bada.
9.6	Animalietatik eta landareetatik eratorritako lehengaien tratatze eta eraldatzea, ontziratze soilaz bestelakoa, lehengai horiek aurretiaz tratatuak izan nahiz ez, xedea izanik elikagaiak edo pentsuak ekoiztea, produktu konbinatuetan nahiz bereizirik, produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko $[300 - (22,5 \times A)]$ t edo txikiagoa denean, baldin eta produktu amaituak ekoizteko ahalmenean animalia-gaien partea (pisuaren ehunekoan) 10 baino gutxiagokoa bada.
9.7	Bakar-bakarrik esnea tratatzea eta eraldatzea, jasotzen den esne kantitatea eguneko 50 t baino handiagoa eta 200 t edo txikiagoa denean (urteko batez besteko balioa).
9.8	Animalia-karkasak edo -hondakinak deuseztatzeko edo aprobetxatzeko instalazioak, tratamendu-ahalmena eguneko 10 t edo txikiagoa dutenak.
9.9	Landare-koipeak eta -olioak egiteko industria-instalazioak, industrialdeetatik kanpo eta bizitegi eremu batetik 500 metro baino gutxiagora daudenak, 1 ha-ko azalera baino handiagoa hartzen dutenak, eta produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 100 t baino handiagoa eta 300 t edo txikiagoa dutenak.
9.10	Garagardoa eta malta fabrikatzeko industria-instalazioak, industrialdeetatik kanpo eta bizitegi eremu batetik 500 metro baino gutxiagora daudenak, 1 ha-ko azalera baino handiagoa hartzen dutenak, eta produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 100 t baino handiagoa eta 300 t edo txikiagoa dutenak.
9.11	Konfiturak eta almibarrak egiteko industria-instalazioak, industrialdeetatik kanpo eta bizitegi eremu batetik 500 metro baino gutxiagora daudenak, 1 ha-ko azalera baino handiagoa hartzen dutenak, eta produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 100 t baino handiagoa eta 300 t edo txikiagoa dutenak.
9.12	Fekulak fabrikatzeko industria-instalazioak, industrialdeetatik kanpo eta bizitegi eremu batetik 500 metro baino gutxiagora daudenak, 1 ha-ko azalera baino handiagoa hartzen dutenak, eta produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 100 t baino handiagoa eta 300 t edo txikiagoa dutenak.
9.13	Arrain-irina eta -olioa fabrikatzeko industria-instalazioak, industrialdeetatik kanpo eta bizitegi eremu batetik 500 metro baino gutxiagora daudenak, 1 ha-ko azalera baino handiagoa hartzen dutenak, eta produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 30 t baino handiagoa eta 75 t edo txikiagoa dutenak.
9.14	Azukre-lantegiak, edozein tratamendu-ahalmen dutenak.
9.15	Landare-olioa eta animalia-koipea erauztea eta landare-olioa fintzeko jarduerak, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 10 t baino handiagoa eta 200 t edo txikiagoa denean.

<b>10. TALDEA: ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK</b>	
10.1	Oilo erruleak, toki-kopurua 20.000 baino gehiagokoa eta 40.000 edo gutxiagokoa denean.
10.2	Gizentzeko oilaskoak, toki-kopurua 30.000 baino gehiagokoa eta 85.000 edo gutxiagokoa denean.
10.3	Hazteko ahateak eta/edo ahate paparoratuak, toki-kopurua 15.000 baino gehiagokoa denean.
10.4	Gizentzeko ahateak, toki-kopurua 30.000 baino gehiagokoa denean.
10.5	Ostruka helduak, toki-kopurua 600 baino gehiagokoa denean.
10.6	Gizentzeko ostrukak, toki-kopurua 2.400 baino gehiagokoa denean.
10.7	Galeperrak, toki-kopurua 240.000 baino gehiagokoa denean.
10.8	Eperrak, toki-kopurua 60.000 baino gehiagokoa denean.
10.9	Usoak, toki-kopurua 60.000 baino gehiagokoa denean.
10.10	Faisaiak, toki-kopurua 30.000 baino gehiagokoa denean.
10.11	30 kg baino gehiagoko gizentzeko txerriak, toki-kopurua 1.000 baino gehiagokoa eta 2.000 edo gutxiagokoa denean.
10.12	20 kg baino gehiagoko gizentzeko txerriak, toki-kopurua 1.000 baino gehiagokoa eta 2.500 edo gutxiagokoa denean.
10.13	Hazteko txerriak, toki-kopurua 360 baino gehiagokoa eta 750 edo gutxiagokoa denean.
10.14	Txerri-ustiategi mistoak: gizentze aurretiko txerriak eta haztekoak dituztenak, ziklo itxian, azienda larriko unitate baliokideen kopurua 120 baino gehiagokoa denean.
10.15	Esnetarako behiak, toki-kopurua 120 baino gehiagokoa denean.
10.16	Haragitarako behiak, toki-kopurua 150 baino gehiagokoa denean.
10.17	Gizentzeko behiak, toki-kopurua 300 baino gehiagokoa denean.
10.18	Ardiak, toki-kopurua 1.000 baino gehiagokoa denean.
10.19	Ahuntzak, toki-kopurua 1.000 baino gehiagokoa denean.
10.20	Zaldi helduak, toki-kopurua 150 baino gehiagokoa denean.
10.21	Gizentzeko zaldiak, toki-kopurua 300 baino gehiagokoa denean.
10.22	Untxiak, toki-kopurua 10.000 baino gehiagokoa denean.
10.23	Ustiategi mistoak, azienda larriko unitate baliokideen kopurua 120 baino gehiagokoa denean.
10.24	Beste kategoria batzuetan zehaztu gabeak diren abeltzaintzako bestelako instalazioak, azienda larriko unitate baliokideen kopurua 120 baino gehiagokoa denean.
10.25	Akuikultura intentsiboa, ekoizteko ahalmena urteko 500 t baino gehiagokoa denean.

<b>11. TALDEA: DISOLBATZAILE ORGANIKOEN KONTSUMOA</b>	
11.1	Materialen, gauzen edo produktuen gainazalak disolbatzaile organikoak erabiliz tratatzeko instalazioak; bereziki, atondu, estanpatu, gaineztatu eta koipea kendu, iragazgaitz bihurtu, itsatsi, lakatu, garbitu edo inpregnatzekoak, disolbatzaile organikoak kontsumitzeko ahalmena urteko 15 t baino gehiagokoa eta 200 t edo gutxiagokoa denean.
11.2	Fabrikaturiko produktuen edo materialen gainazalak garbitzea (salbu eta ekipamenduak garbitzea), urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluko 1. apartatuan zehazten diren konposatu organiko lurrunkorrak dituzten substantziak edo prestakinak erabiltzen badira, disolbatzaile organikoek kontsumoa urteko 1 t baino gehiagokoa eta 200 t edo gutxiagokoa denean.
11.3	Arropak lehorrean garbitzea disolbatzaile organikoak erabiliz, disolbatzaileen kontsumoa urteko 200 t edo gutxiagokoa denean.
11.4	Fabrikaturiko produktuen edo materialen gainazalak bestela garbitzea (salbu eta ekipamenduak garbitzea), disolbatzaile organikoek kontsumoa urteko 2 t baino gehiagokoa eta 200 t edo gutxiagokoa denean.
11.5	Metalezko bobinak gainestaltzea, estaldura ijertu edo geruza batez, prozesu jarraituan, disolbatzaile organikoek kontsumoa urteko 25 t baino gehiagokoa eta 200 t edo gutxiagokoa denean.
11.6	Bestela gainestaltzea geruza jarraitu batez, metala, plastikoa, ehunak, filmak eta papera gainestaltzea barne, disolbatzaile organikoek kontsumoa urteko 5 t baino gehiagokoa eta 200 t edo gutxiagokoa denean.
11.7	Bobinetako alanbrea gainestaltzea, disolbatzaile organikoek kontsumoa urteko 5 t baino gehiagokoa eta 200 t edo gutxiagokoa denean.
11.8	Zura gainestaltzea, disolbatzaile organikoek kontsumoa urteko 15 t baino gehiagokoa eta 200 t edo gutxiagokoa denean.
11.9	Itsasgarriekin gainestaltzea, disolbatzaile organikoek kontsumoa urteko 5 t baino gehiagokoa eta 200 t edo gutxiagokoa denean.
<b>12. TALDEA: ZURA KONTSERBATZEKO INDUSTRIA</b>	
12.1	Produktu kimikoak erabiliz zura eta produktu eratorriak kontserbatzeko lantegi industrialak, ekoizteko ahalmena eguneko 50 m <sup>3</sup> baino gehiagokoa eta 75 m <sup>3</sup> edo gutxiagokoa denean.
12.2	Zur-zuntzak inpregnatzea, disolbatzaile organikoek kontsumoa urteko 25 t baino gehiagokoa eta 200 t edo gutxiagokoa denean.
<b>13. TALDEA: HONDAKIN UREN TRATAMENDUA</b>	
13.1	Hondakin uren tratamendu independentea, hirietako hondakin urei buruzko legerian aipatzen ez dena, baldin eta ingurumen-baimen integratua behar ez duen instalazio batek isurtzen baditu, eta ahalmena 300 biztanleri dagokiena baino handiagoa denean.
13.2	Hondakin uren tratamendu ez-independentea, hirietako hondakin urei buruzko legerian aipatzen ez dena, ahalmena 300 biztanleri dagokiena baino handiagoa denean.
13.3	Hiriko hondakin uren tratamendurako instalazioak, ahalmena 300 biztanleri dagokiena baino handiagoa denean.

13.4	Hondakin urak tratatzeko instalazioak, ahalmena edozein izanik ere eremuarentzat negatiboak diren eraldaketa ekologikoak ekartzen ahal badituzte, honako eremu hauetan ipintzen direnean: naturagune babestuak, Natura 2000 Sarea eta nazioarteko bitartekoek babestutako eremuak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean araututakoarekin bat.
<b>14. TALDEA: CO2-AREN HARRAPAKETA</b>	
CO <sub>2</sub> fluxuak harrapatzeko instalazioak, ingurumen-baimen integratua behar ez dutenak, biltegitratze geologikoa helburu dutenak, Karbono dioxidoaren biltegitratze geologikoari buruzko abenduaren 29ko 40/2010 Legearekin bat.	
<b>15. TALDEA: ARTE GRAFIKOAK</b>	
15.1	Bobinen offset inprimaketa, beroan lehortuzkoa, disolbatzaileen kontsumoa urteko 15 t baino handiagoa denean.
15.2	Argitalpenen errotgrabatua, disolbatzaileen kontsumoa urteko 25 t baino handiagoa denean.
15.3	Errotgrabaturako, flexografiarako, inprimaketa serigrafiko birakarirako, ijeketarako edo bernizatzeke bestelako unitateak, disolbatzaileen kontsumoa urteko 15 t baino handiagoa denean.
15.4	Ehunetan, kartoian edo kartulinan inprimaketa serigrafiko birakaria egiteko bestelako unitateak, disolbatzaileen kontsumoa urteko 30 t baino handiagoa denean.
<b>16. TALDEA: BESTE INDUSTRIA JARDUERA BATZUK</b>	
16.1	Beira-zuntzez sendotutako poliesterezko elementuak ekoiztea.
16.2	Kautxua tratatzea edo eraldatzea, disolbatzaile organikoen kontsumoa urteko 15 t baino handiagoa eta 200 t edo txikiagoa denean.
16.3	Pintatzeko tresnak edo pintatutako piezak desugertzeko eta garbitzeko instalazioak.
16.4	Substantzia lehergarriak fabrikatzeko, berreskuratzeko edo suntsitzeko instalazioak.
16.5	Giza hilotzak eta gorpuzkinak errausteko labeak.
16.6	Giza hilotzak eta gorpuzkinak errausteko labeak.
16.7	Nahasketa bituminosoak edo asfalto-konglomeratuak ekoizteko instalazioak.
16.8	Hormigoia ekoizteko instalazioak.
16.9	Hondakin urak isurtzen dituzten ikuztegi industrialak, egunean isurtzen den emaria 50 m <sup>3</sup> baino handiagoa denean.
16.10	Aireontziak eraiki eta konpontzeko instalazioak, ahalmena edozein izanik ere.
16.11	Trenbide arloko materiala fabrikatzeko instalazioak, ahalmena edozein izanik ere.
16.12	Ibilgailu motordunak fabrikatu eta muntatzeko eta ibilgailuen motorrak fabrikatzeko instalazioak, ahalmena edozein izanik ere.
16.13	Motor, turbina edo erreaktoreen instalazioak edo saiakuntza-bankuak, ahalmena edozein izanik ere.
16.14	Ibilgailu erretiratuak biltegitratzeko instalazioak (ibilgailuak jasotzeko instalazioak).
16.15	Bestelako industria-instalazioak, beste kategoriatan batzuetan zehaztu gabek, atmosferara isuriak egiteko baimena edukitzea beharrezkoa dutenak.

<b>17. TALDEA: BILTEGIRATZE-INSTALAZIOAK</b>	
17.1	Gai kimikoak biltegitratzeko instalazioak, ahalmena 100 m <sup>3</sup> baino handiagoa denean.
17.2	Petrolio edo petrolio-produktuak biltegitratzeko instalazioak, ahalmena 100 m <sup>3</sup> baino handiagoa denean.
17.3	Produktu petrokimikoak biltegitratzeko instalazioak, ahalmena 100 m <sup>3</sup> baino handiagoa denean.
17.5	Erregai likidoen hornidura xede duten biltegitratze-instalazioak (industria-prozesuak eta antzekoak hornitzeko biltegi osagarriak), ahalmena 500 m <sup>3</sup> edo handiagoa denean.
17.6	Erregai likidotuen hornidura xede duten biltegitratze-instalazioak (petrolio-gas likidotuaren eta antzekoen biltegiak), ahalmena 500 t edo handiagoa denean.
17.7	Erregai likidoak edo likidotuak banatzeko biltegi logistikoak, ahalmena edozein izanik ere.
17.8	Petrolio lurpean biltegitratzea, helburu komertzialekin, ahalmena edozein izanik ere.
17.9	Gas naturala lurpean biltegitratzea, helburu komertzialekin, ahalmena edozein izanik ere.
17.10	Petrolio edo gas naturala lurpean biltegitratzea, ahalmena edozein izanik ere, honako eremu hauetan egiten bada: naturagune babestuak, Natura 2000 Sarea eta nazioarteko bitartekoek babestutako eremuak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean araututakoarekin bat.
17.11	Gas erregaien lurpeko biltegitratzea edozein kokalekutan, eta gas naturalaren lurpeko biltegitratzea honako eremu hauetatik kanpo, ahalmena edozein izanik ere: naturagune babestuak, Natura 2000 Sarea eta nazioarteko bitartekoek babestutako eremuak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean araututakoarekin bat.
17.12	Erregai fosil solidoak lur gainean biltegitratzea, ahalmena edozein izanik ere.
17.13	Honako hauetarako diseinaturiko instalazioak: erregai nuklear gastatuaren azken biltegitratzea egiteko, edo hondakin erradioaktiboen azken biltegitratzea egiteko soilik, edo erregai nuklear irradiatuen nahiz hondakin erradioaktiboen biltegitratzea egiteko soilik, horiek sortzen diren tokiaz bestelako batean (hamar urte baino gehiagorako proiektatuak).
17.14	Hidrokarburo halogenatuak eta sufre hexakloruroa biltegitratzeko instalazioak, ahalmena edozein izanik ere.
17.15	Simaur likidoen (mindak) biltegitratze independentea, ahalmena guztira 5.000 m <sup>3</sup> baino handiagoa denean.
17.16	Simaur solidoen biltegitratze independentea, ahalmena guztira 5.000 t baino handiagoa denean.
<b>18. TALDEA: MERKATARITZA JARDUERAK ETA ZERBITZUAK</b>	
Erregai likidoen zerbitzuguneak eta hornidurako unitateak, biltegitratze ahalmena 500 m <sup>3</sup> edo handiagoa denean.	



## 2. ERANSKINA

### INGURUMEN-UKIPENEN TXOSTENA ESKURATU BEHAR DUTEN PROIEKTU, INSTALAZIO, JARDUKETA ETA JARDUERAK.

- A) Lurzatiak berrantolatzeko proiektuak, ingurumen -inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak eta 10 hektareatik gorako azalera ukitzen dutenak.
- B) Nekazaritzarako ura kudeatzeko egitasmo hauek:
- a. 10 hektarea baino gehiagoko azalera urreztatzeak sendotzeko eta hobetzeko proiektuak, ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik egin beharrik ez dutenak.
  - b. Ureztapena eraldatzeko proiektuak, ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik behar ez dutenean.
- C) Bide eta pista berriak egitea, iraunkorrak eta 100 metro lineal baino luzeagoak direnak.
- D) Errepideak zabaldu eta hobetzeko proiektuak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.
- E) Energiari buruzko instalazioak.
- a. kV -etik g orako potentzial -diferentzia duten linea elektrikoak eta transformazio azpiestazioak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.
  - b. Ingurumen -inpaktuaren ebaluaziorik behar ez duten oliobideak eta gasbideak, 100 metro baino luzeagoak direnak.
  - c. Eg uzki-energiaren aprobetxamendurako instalazioak, eraikinen estalki edo teilatuetatik kanpo daudenak eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.
  - d. Haize-sorgailuak multzoka edo banaka instalatzeko proiektuak, guztira 10 kW -etik gorako potentzia dutenak eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.
- F) Komunikazioko instalazioak.
- a. Telekomunikazioen banaketa-sareak.
  - b. Telebista eta irrati hedapeneko errepikagailuak.
  - d. Telekomunikazio-antenak eta horiei loturiko azpiegiturak.
- G) Hornidurarako eta saneamendurako hodiak, 100 metro baino luzeagoak eta ingurumen -inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.
- H) Aire zabaleko meategiak, obra publiko bati lotuak eta hari bakarrik zerbitzu ematen diotenak, baldin eta obra horren ingurumen arloko tramitazioan ebaluatu ez badira.
- I) Ingurumen-degradazioa duten guneak leheneratzeko proiektuak, degradazio-egoera eragin duten proiektu baimenduetan sartu gabekoak.

## 3. ERANSKINA

## JARDUERA SAILKATUETARAKO LIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERAK

<b>1. TALDEA: ERREKUNTZA- ETA ENERGIA-INSTALAZIOAK</b>	
Industria batean dauden galdarak, lurrin -sorgailuak edo errekontzako beste edozein instalazio edo ekipamendu, salbu eta elektrizitatea sortzeko edo kogeneraziorako instalazioak, jarduera nagusia hori izan nahiz ez izan, potentzia tekniko izendatua 5 MW baino txikiagoa eta 250 kW-koa edo handiagoa dutenak.	
<b>2. TALDEA: METALAK EKOITZI ETA ERALDATZEA</b>	
2.1	Prozedura elektrolitiko edo kimikoen bidez metalen eta material plastikoen gainazalak tratatzeko instalazioak, tratamendu durako erabiltzen diren kubeta edo linea osoen bolumena 1 m <sup>3</sup> edo txikiagoa denean.
2.2	Honako hauen bidez metalezko produktuak eraldatzeko lantegiak eta industriak, guztizko azalera eraikia 2.000 m <sup>2</sup> koa edo gutxiagokoa dutenak: mozketa, mekanizazioa, trokelaketa, estanzazioa, enbutzioa, soldadura, moldaketa edo konformazioko beste jardura batzuk, salbu eta gainazal-tratamendu fisiko-kimikoa egiten denean bainu likido edo urtuetan.
<b>3. TALDEA: HONDAKINEN KUDEAKETA</b>	
3.1	Konposta eskalan egiteko instalazioak.
3.2	Arriskutsuak ez diren hondakinen balorizaziorako instalazioak, beste kategoriatan sarturik ez daudenak, urteko ahalmena 50 t baino txikiagoa dutenak.
3.3	Hondakinak biltzeko garbigune finkoak, ahalmena guztira 50 tona edo gutxiagokoa dutenak hondakin arriskutsuetarako, eta 100 tona, hondakin ez -arriskutsuetarako, toki entitateek kudeatuko dituzte.
3.4	Arriskutsuak ez diren hondakinak (txatarrak barne) aldi baterako biltegitratzea, biltze-ahalmena guztira 100 t baino txikiagoa denean, salbu eta hondakina aldi baterako biltegitratzen bada sortzen den tokian berean eta hondakin -bilketa egin artean, industrialde bateko pabiloi baten barnean.
3.5	Hondakin arriskutsuen aldi baterako biltegitratzea, ahalmena guztira 50 t edo txikiagoa denean, aparatu elektriko edo elektronikoen hondakinen plataforma logistikoetan, sektoreko araudi indardunean definitu bezala.
<b>4. TALDEA: PAPERAREN, KARTOIAREN ETA ZURAREN DERIBATUEN INDUSTRIA</b>	
4.1	Zura eraldatzeko industria, hala nola zerratokiak, zurgindegiak eta altzarigintza.
4.2	Zuraren eta plastikoaren ijezketa, disolbatzaile organikoen kontsumoa urteko 5 t edo txikiagoa denean.
4.3	Paperaren, kartoiaren eta zuraren bestelako industriak, erantzukizunpeko adierazpenik edo aurretiko jakinarazpenik egin behar ez dutenak oinarritzko araudiari jarraikiz, eraikitako azalera guztira 300 m <sup>2</sup> baino handiagoa bada.
<b>5. TALDEA: EHUNGINTZA ETA OINETAKOGINTZA INDUSTRIA</b>	
Ehungintza edo oinetakogintza industriak, beste kategoriatan sarturik ez daudenak, erantzukizunpeko adierazpenik edo aurretiko jakinarazpenik egin behar ez dutenak oinarritzko araudiari jarraikiz, baldin eta guztizko azalera eraikia 300 m <sup>2</sup> baino handiagoa bada.	
<b>6. TALDEA: LARRUGINTZA INDUSTRIA</b>	
6.1	Larruzko gauzak fabrikatzea, erantzukizunpeko adierazpenik edo aurretiko jakinarazpenik egin behar ez bada oinarritzko araudiari jarraikiz, guztizko azalera eraikia 300 m <sup>2</sup> baino handiagoa denean.
6.2	Larrua gainestaltzea, disolbatzaile organikoen kontsumoa urteko 10 t edo txikiagoa denean.

<b>7. TALDEA: NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIAK</b>	
7.1	Hiltegiak, kanalak ekoizteko ahalmena eguneko 10 t edo txikiagoa denean.
7.2	Animalietatik eratorritako lehengaien (esne hutsaz haragokoen) tratatzea eta eraldatzea, ontziratze soilaz bestelakoa, lehenago tratatuak izan nahiz ez, elikagaiak edo pentsuak ekoizteko helburuarekin, produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 30 t edo txikiagoa denean.
7.3	Landareetatik eratorritako lehengaien tratatze eta eraldatzea, ontziratze soilaz bestelakoa, lehenago tratatuak izan nahiz ez, elikagaiak edo pentsuak ekoizteko helburuarekin, produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 100 t edo txikiagoa denean.
7.4	Landareetatik eratorritako lehengaien tratatze eta eraldatzea, ontziratze soilaz bestelakoa, lehenago tratatuak izan nahiz ez, elikagaiak edo pentsuak ekoizteko helburuarekin, produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 200 t edo txikiagoa denean, baldin eta instalazioak funtzionatzen badu 90 egun jarraitu baino gehiagokoa ez den epe batean, edozein urte baten barnean.
7.5	Bakar-bakarrik esnea tratatzea eta eraldatzea, jasotzen den esne kantitatea eguneko 50 t edo txikiagoa denean (urteko batez besteko balioa).
7.6	Landare-koipeak eta -olioak egiteko industria -instalazioak, industrialdeetan edo bizitegi -eremu batetik 500 metro baino gehiagora kokatuta daudenak, edo 1 ha. baino gutxiago hartzen dutenak, eta produktu amaituak ekoizteko ahalmena eguneko 100 t edo txikiagoa dutenak.
7.7	Garagardoa eta malta fabrikatzeko industria -instalazioak, industrialdeetan edo bizitegi -eremu batetik 500 metro baino gehiagora kokatuta daudenak, edo 1 ha. baino gutxiago hartzen dutenak, eta ekoizteko ahalmena eguneko 100 t edo txikiagoa dutenak.
7.8	Konfiturak eta almibarrak egiteko industria -instalazioak, industrialdeetan edo bizitegi -eremu batetik 500 metro baino gehiagora kokatuta daudenak, edo 1 ha. baino gutxiago hartzen dutenak, eta ekoizteko ahalmena eguneko 100 t edo txikiagoa dutenak.
7.9	Fekulak fabrikatzeko industria -instalazioak, industrialdeetan edo bizitegi-eremu batetik 500 metro baino gehiagora kokatuta daudenak, edo 1 ha. baino gutxiago hartzen dutenak, eta ekoizteko ahalmena eguneko 100 t edo txikiagoa dutenak.
7.10	Arrain-irina eta -olioa fabrikatzeko industria -instalazioak, industrialdeetan edo bizitegi -eremu batetik 500 metro baino gehiagora kokatuta daudenak, edo 1 ha. baino gutxiago hartzen dutenak, eta ekoizteko ahalmena eguneko 75 t edo txikiagoa dutenak.
7.11	Landare-olioa eta animalia -koipea erauztea eta landare -olioa fintzeko jarduerak, disolbatzaile organikoen kontsumoa urteko 10 t edo txikiagoa denean.
<b>8. TALDEA: ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK</b>	
8.1	Oilo erruleak, toki-kopurua 100 edo gehiago eta 20.000 edo gutxiago denean.
8.2	Gizentzeko oilaskoak, toki-kopurua 200 edo gehiago eta 30.000 edo gutxiago denean.
8.3	Hazteko eta/edo paparoratuak diren ahateak, toki -kopurua 100 edo gehiago eta 15.000 edo gutxiago denean.
8.4	Gizentzeko ahateak, toki-kopurua 100 edo gehiago eta 30.000 edo gutxiago denean.
8.5	Ostruka helduak, toki-kopurua 10 edo gehiago eta 600 edo gutxiago denean.
8.6	Gizentzeko ostrukak, toki-kopurua 20 edo gehiago eta 2.400 edo gutxiago denean.
8.7	Galeperrak, toki-kopurua 400 edo gehiago eta 240.000 edo gutxiago denean.
8.8	Eperrak, toki-kopurua 400 edo gehiago eta 60.000 edo gutxiago denean.
8.9	Usoak, toki-kopurua 400 edo gehiago eta 60.000 edo gutxiago denean.
8.10	Faisaiak, toki-kopurua 200 edo gehiago eta 30.000 edo gutxiago denean.
8.11	30 kg baino gehiagoko gizentzeko txerriak, toki-kopurua 20 edo gehiago eta 1.000 edo gutxiago denean.

8.12	20 kg baino gehiagoko gizentzeko txerriak, toki -kopurua 20 edo gehiago eta 1.000 edo gutxiago denean.
8.13	Hazteko txerriak, toki-kopurua 5 baino gehiago eta 360 edo gutxiago denean.
8.14	Txerri-ustiategi mistoak, gizentze aurretiko txerriak eta haztekoak dituztenak ziklo itxian,azienda larriko unitate baliokideen kopurua 3 edo gehiago eta 120 edo gutxiago denean.
8.15	Esnetarako behi helduak, toki-kopurua 3 edo gehiago eta 120 edo gutxiago denean.
8.16	Haragitarako behi helduak, toki-kopurua 4 edo gehiago eta 150 edo gutxiago denean.
8.17	Gizentzeko behiak, toki-kopurua 6 edo gehiago eta 300 edo gutxiago denean.
8.18	Ardiak, toki-kopurua 30 edo gehiago eta 1.000 edo gutxiago denean.
8.19	Ahuntzak, toki-kopurua 30 edo gehiago eta 1.000 edo gutxiago denean.
8.20	Zaldi helduak, toki-kopurua 5 edo gehiago eta 150 edo gutxiago denean.
8.21	Gizentzeko zaldiak, toki-kopurua 6 edo gehiago eta 300 edo gutxiago denean.
8.22	Untxiak, toki-kopurua 40 edo gehiago eta 10.000 edo gutxiago denean.
8.23	Ustiategi mistoak, espezie bat baino gehiago dituztenak,azienda larriko unitate baliokideen kopurua 5 edo gehiago eta 120 edo gutxiago denean.
8.24	Abeltzaintzako bestelako instalazioak, beste kategoria batzuetan zehaztu gabeak,azienda larriko unitate baliokideen kopurua 5 edo gehiago eta 120 edo gutxiago denean.
8.25	Akuikultura intentsiboa, ekoizteko ahalmena urteko 500 t edo txikiagoa denean.
<b>9. TALDEA: DISOLBATZAILE ORGANIKOEN KONTSUMOA</b>	
9.1	Materialen, gauzen edo produktuen gainazalak disolbatzaile organikoak erabiliz tratatzeko instalazioak; bereziki, atondu, estanpatu, gaineztatu eta koipea kendu, iragazgaitz bihurtu, itsatsi, lakatu, garbitu edo inpregnatzekoak, disolbatzaile organikoak kontsumitzeko ahalmena urteko 15 t edo gutxiagokoa denean.
9.2	Fabrikaturiko produktuen edo materialen gainazalak garbitzea (salbu eta ekipamenduak garbitzea), urtarilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluko 1. apartatuan zehazten diren konposatu organiko lurrunkorrak dituzten substantziak edo prestakinak erabiltzen badira, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 1 t edo txikiagoa denean.
9.3	Fabrikaturiko produktuen edo materialen gainazalak bestela garbitzea (salbu eta ekipamenduak garbitzea), disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 2 t edo txikiagoa denean.
9.4	Metalezko bobinak gainestaltzea, estaldura ijestu edo geruza batez, prozesu jarraituan, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 25 t edo txikiagoa denean.
9.5	Bestela gainestaltzea (metala, plastikoa, ehunak, filmak eta papera gainestaltzea barne), geruza jarraitu batez, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 5 t edo txikiagoa denean.
9.6	Bobinetako alanbrea gainestaltzea, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 5 t edo txikiagoa denean.
9.7	Zura gainestaltzea, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 15 t edo txikiagoa denean.
9.8	Itsasgarriekin gainestaltzea, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 5 t edo txikiagoa denean.
9.9	Zur-zuntzak inpregnatzeko, disolbatzaile organikoaren kontsumoa urteko 25 t edo txikiagoa denean.
<b>10. TALDEA: ZURA KONTSERBATZEKO INDUSTRIA</b>	
Produktu kimikoak erabiliz zura eta produktu eratorriak kontserbatzeko lantegi industrialak, ekoizteko ahalmena eguneko 50 m <sup>3</sup> edo txikiagoa denean.	

<b>11. TALDEA: HONDAKIN UREN TRATAMENDUA</b>	
11.1	Hondakin uren tratamendu independentea, hirietako hondakin urei buruzko legerian aipatzen ez dena, baldin eta ingurumen-baimen integratua behar ez duen instalazio bat ek isurtzen baditu, eta ahalmena 300 biztanleri dagokiena edo txikiagoa denean.
11.2	Hondakin uren tratamendu ez-independentea, hirietako hondakin urei buruzko legerian aipatzen ez dena, ahalmena 300 biztanleri dagokiena edo txikiagoa denean.
11.3	Hiriko hondakin uren tratamendurako instalazioak, ahalmena 300 biztanleri dagokiena edo txikiagoa denean.
<b>12. TALDEA: ARTE GRAFIKOAK</b>	
12.1	Testuak edo irudiak erreproduzitzea honakoak bezalako prozedurak erabiliz, jendeari erakusteko eta saltzeko azalera erabilgarria 750 m <sup>2</sup> baino handiagoa denean: multikopistak, prozedura fotografikoak eta elektrostatiokoak erabiliz egindako fotokopiak, planoak erreproduzitzeko sistemak, etab.
12.2	Bobinen offset inprimaketa, beroan lehortuzkoa, disolbatzaile -kontsumoa urteko 15 t edo txikiagoa denean.
12.3	Argitalpenen errotograbatua, disolbatzaileen kontsumoa urteko 25 t edo txikiagoa denean.
12.4	Errotograbaturako, flexografiarako, inprimaketa serigrafiko birakarirako, ijezketarako edo bernizatzeke bestelako unitateak, disolbatzaileen kontsumoa urteko 15 t edo txikiagoa denean.
12.5	Ehunetan, kartoian edo kartulinar inprimaketa serigrafiko birakaria egiteko bestelako unitateak, disolbatzaileen kontsumoa urteko 30 t edo txikiagoa denean.
<b>13. TALDEA: BESTE INDUSTRIA-JARDUERA BATZUK</b>	
13.1	Plastikozko produktuak fabrikatzea, injekzio, moldekatze edo estrusio bidez.
13.2	Kautxua tratatzea edo eraldatzea, disolbatzaile organikoen kontsumoa urteko 15 t edo txikiagoa denean.
13.3	Hargintzako, igeltserotzako eta elektrizitateko lantegiak.
13.4	Hormigoizko elementu prefabrikatuak fabrikatzeko lantegiak.
13.5	Hondakin urak isurtzen dituzten ikuztegi industrialak, egunean isurtzen den emaria 50 m <sup>3</sup> edo txikiagoa denean.
13.6	Ibilgailu- eta makina-konponketarako lantegiak.
13.7	Produktu edo prozesu berriak ikertu eta garatzeko zentroak, ahalmena edozein izanik ere.
13.8	Bestelako industria-instalazioak, beste kategoria batzuetan zehaztu gabeak, atmosferara isuriak egiteko baimena edukitzerik beharrezkoa ez dutenak.
<b>14. TALDEA: BILTEGIRATZEKO INSTALAZIOAK</b>	
14.1	Nekazaritzako produktuen biltegiak, guztizko azalera eraikia 500 m <sup>2</sup> edo handiagoa bada.
14.2	Gauzen eta materialen biltegiak, guztizko azalera eraikia 500 m <sup>2</sup> edo handiagoa bada.
14.3	Gai kimikoak biltegiratzeko instalazioak, ahalmena 100 m <sup>3</sup> edo txikiagoa eta 1.000 litro baino handiagoa denean.
14.4	Petrolio edo petrolio-produktuak biltegiratzeko instalazioak, ahalmena 100 m <sup>3</sup> edo txikiagoa eta 1.000 litro baino handiagoa denean.
14.5	Produktu petrokimikoak biltegiratzeko instalazioak, ahalmena 100 m <sup>3</sup> edo txikiagoa eta 1.000 litro baino handiagoa denean.
14.6	Gas naturala lur gainean biltegiratzeko tangak, unitateko ahalmena 200 t baino txikiagoa eta 1 t baino handiagoa denean.

14.7	Erregai likidoen hornidura xede duten biltegitratze -instalazioak (industria -prozesuak eta antzekoak hornitzeko biltegi osagarriak), ahalmena 500 m <sup>3</sup> baino txikiagoa eta 1.000 litro baino handiagoa dutenak.
14.8	Erregai likidotuen hornidura xede duten biltegitratze-instalazioak (petrolio -gas likidotuaren eta antzekoen biltegiak), ahalmena 500 m <sup>3</sup> baino txikiagoa eta 1.000 litro baino handiagoa dutenak.
14.9	Simaur likidoen (mindak) biltegitratze independentea, ahalmena guztira 5.000 m <sup>3</sup> edo txikiagoa denean.
14.10	Simaur solidoen biltegitratze independentea, ahalmena guztira 5.000 t edo txikiagoa denean.
<b>15. TALDEA: MERKATARITZA JARDUERAK ETA ZERBITZUAK</b>	
15.1	Espektakuluak eta aisialdiko jarduerak, heldurik Establezimendu, ikuskizun publiko eta josteta jardueren katalogoa onesten duen irailaren 23ko 202/2002 Foru Dekretuari edo horren baliokide den arau indardunari.
15.2	Hilerrak, tanatorioak eta hildakoen beilatokiak.
15.3	Erregai likidoen zerbitzuguneak eta hornidurako unitateak, ahalmena 500 m <sup>3</sup> baino txikiagoa eta 1.000 litro baino handiagoa dutenak.
15.4	Ibilgailuen, zisternen eta garraiorako edukiontzien garbitokiak.
15.5	Turismo-ostatatze jarduerak (hotel-establezimenduak, ostatuak, turismoko aterpetxeak, mendiko aterpeak, oporretako zentro ak eta udalekuak, bainuetxeak eta horien antzekoak), erantzukizunpeko adierazpenik edo aurretiazko jakinarazpenik egin behar ez dutenak oinarrizko araudiaren arabera.
15.6	Bestelako merkataritza - eta zerbitzu -jarduerak, beste kategoria batzuetan zehaztu gabeak, erantzukizunpeko adierazpenik edo aurretiazko jakinarazpenik egin behar ez dutenak oinarrizko araudiaren arabera, guztizko azalera eraikia 300 m <sup>2</sup> baino handiagoa dutenak edo instalatutako guztizko potentzia mekanikoa 10 kW baino handiagoa dutenak.
15.7	Tatuajeak eta/edo piercingak egiten diren establezimendu ez -sanitarioen kasuan ez dago potentzia- eta azalera-mugarik.
15.8	Pertsonen segurtasunean eragina duten jarduerak, osasun arlokoak, bizileku publikoei dagozkienak, aparkatzekoak, irakaskuntzakoak, administratiboak, kultural/erlijiosoak, eta garraio azpiegiturei dagozkienak.



## **Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak.**

### **AKATS ZUZENKETA**

Akats bat antzeman da Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketen argitalpenean (2020ko abenduaren 10eko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala). Hona zuzenketa:

6. zenbakiko zuzenketan, sarreran zein zioen azalpenean, “e) letra gehitzea” esan ordez, “c) letra gehitzea” esan behar du.

Iruñean, 2020ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko azaroaren 26an egindako Osoko Bilkuran, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa**

#### HITZAURREA

I

Azken urteotan hainbat dira, deslokalizazioaren fenomenoaren eraginez, gure komunitatea utzi eta atzerrian beren lantokiak kokatu dituzten enpresak. Eskulan-gastuak eta kostuak murriztuz etekinak areagotzeko helburuarekin, urte askoz gure lurraldean egon diren hainbat enpresak beren produkzio osoa edo zati handi bat kanpora bideratu dute.

COVID-19aren krisiarekin, enpresa batzuek beren interes ekonomikoengatik deslokalizazio berriak planteatzeko arriskua jarri da abian.

Deslokalizazio gisa ezagutzen den jardueraren bidez, zerbitzuen eta bitarteko ondasunen enpresek, besteak beste, haiekin mendekotasun-erlaziorik ez duten atzerriko hornitzaileei erosketak egiten dizkiete, eta atzerrian finkatutako sozietate afiliatuei transferentziak bideratzen dizkiete. Kasu gehienetan estatu batetik bestera egiten dira, eta ondasun edo zerbitzuok enpresak berak edo kanpoko zerbitzu-emaleek hornitu ahal dituzte. Kasu gehienetan, garapen urria edo gurea baino gara-

pen txikiagoa duten herrialdeak izaten dira helmuga.

Gero eta ohikoagoa da erabaki- eta botere-guneak kanpoan kokatetik hastea. Hainbat interes direla tarteko (ekonomikoak, fiskalak...) botere- eta erabaki-guneak kanpoan kokatzea izaten da deslokalizazio prozesuen lehen urratsa. Denboran luzatzen diren prozesuak izan ohi dira maiz.

Garapen bidean dauden herrialdeetan eskulana gero eta kualifikatuagoa eta ugariagoa izateak eta ekonomia zein komunikazioen mundializazioak areagotu egin dute deslokalizazioaren bideari ekin dioten enpresen kopurua.

Bereziki industrian ematen den egoera hau ekonomiaren mundializazio eta globalizazio prozesuetan txertatuta dago. Prozesu horiek enpresa transnazionaleri eragiten diete batik bat, eta enpresa transnazional horietako gehienek honako ezaugarriak dituzten estatuak bilatu ohi dituzte: egitura eta babes sozial mugatua, eremu sozialean gutxi garatutako lan legeriak, soldata baxuagoak eta ingurumenaren kontserbazioari dagozkion zuzenbide-arau malguak.

Gero eta nabarmenagoa den fenomeno honek ondorio oso larriak sor ditzake nafar ehundura industrialean: alde batetik, deslokalizazio fenomenoaren bidez zuzenean galdutako enpleguak; bestetik, deslokalizazioaren edo horren mehatxuen eraginez lan baldintzetan atzerapausoak ematea. Soldatak murriztagoak izatea eta lan baldintzek txarrera egitea dira enpresek deslokalizazioaren mehatxua erabiliz ematen diren egoerak. Horren ondorioz, soldata bat izanik ere pobreziatik atera ezin diren pertsonen kopurua areagotu egin da.

Egoera honek gure ekonomia sarean sortzen dituen ondorioei aurre egiteko bitartekoak jartzera behartuta daude administrazioak. Era berean ezinbestekoa da gure ekonomia sustatzeko politi-

ka publiko egokiak diseinatu eta garatzea, Nafarroaren bilakaera sozioekonomikoarekin lotutako politikak, aberastasuna sortu eta banatzen eta bertako biztanleen bizi kalitatea hobetzen lagunduko dutenak.

Politika horien baitan kokatzen dira enpresei bideratutako laguntza publikoak. Konpetentzian, gastuen murrizketan eta ondasunen metaketan oinarritutako merkatuaren aurrean, beste balio batzuetan eraiki behar da enpresak gizartearekin zein Administrazioarekin duen harremana. I+G+B zutabe izanen duen eredu berri batean oinarritutako ekonomia industrial bultzatu behar dute nafar instituzioek, enpresa txiki eta ertainei irtenbideak, aukerak eta laguntzak eskainiz. Ekonomia industrial hori langileen parte-hartzearekin zein lan-kalitatearekin osatuko beharko da. Enplegu egonkorra eta birbana daitekeen aberastasuna sortu behar dira herri honen etorkizuna bermatzeko. Bide hori izango da lehiakortasunera eta kalitatezko lan- zein bizi-baldintzetara eramanez gaituena.

Gure ekonomian enpresek beste hainbat eragile sozial, ekonomiko eta sindikalekin batera betetzen duten eginkizuna ezinbestekoa dela aitorturik, instituzioek bide hori garatzen lagunduko diete. Aldiz, funtsezkoa da gastuak murrizteko helburu soilarekin eta bideragarritasun ekonomikoari lotutako arrazoen bidez justifikatu gabe beren jarduerak bertan behera utzi eta kanpora eramaten dituzten enpresentzako mekanismoak arautzea. Deslokalizazio jarrera horiek lanpostu askoren galera eragin dezakete eta arazo larriak sortu gure herriko ehundura ekonomiko, produktibo eta industrialean.

Enpresen babeserako laguntza publikoak bideratzen direnean, neurri horiei buruzko araudiak diruz laguntzen duen jarduera egitea beharrezkoa da, emandako laguntzaren xedea bete egin behar da, eta jarduera horrek Nafarroako Foru Komunitatearen garapenerako ekarpen eraginkorra eginen duela bermatu beharra dago. Laguntza publikoek kalitatezko enplegu eta lan baldintzak sortzen lagundu behar dute eta ez dute jarduera ekonomikoaren deslokalizazioa erraztu behar.

Problema hau Europa osoan zehar hedatuta dagoenez, Europako erakundeek neurri juridikoak hartu dituzte, Europako Erkidegoak finantzatzen dituen enpresek ez ditzaten beren jarduerak deslokaliza. Mahaigaineratu diren neurri horiek xede dute Europar Batasunak enpresei emandako laguntzak berreskuratzea, baldin laguntza jaso eta zortzi urte igaro aurretik enpresak bere jarduerak deslokalizatzen baditu. Era berean, Europako Parlamentuak eskatu du enpresa horiek Egitura Fun-

tsetatik edo estatu-laguntzetatik kanpo gera daitezela deslokalizaziotik zazpi urte igaro arte.

Europar Batasunak bezala, Nafarroak ere beharrezkotzat jotzen du enpresei arauak ezartzea, eta foru lege honekin baliabide publikoak jaso ondoren deslokalizazioaren bideari ekiten dioten enpresak (produktio osoa edo zatirik handiena kanpora eramanez) azkeneko zortzi urteetan jasotako laguntza guztiak itzultzerara behartuta geratzen dira. Deslokalizazioaren fenomenoari aurre egiteko neurriak hartu izan dira aurretik ere, Nafarroako ehundura industrial babestu eta indartzeko baliagarriak izan direnak eta ekimen desberdin gehiagoren bidez osatzen joan direnak. Foru lege honen bidez beste urrats bat egin nahi da norabide horretan.

## II

Foru lege honek zortzi artikulua ditu, bi kapitulu-tan banatuak, eta hiru xedapen. Lehen kapitulu-tan foru legearen xedea zehazten da, eta arauak ematen dira nafar sektore publikoaren laguntzak jasotzen dituzten enpresentzat, balizko deslokalizazio-kasuetarakoak. Hurrengo bi artikuluetan foru legearen aplikazio eremu subjektibo eta objektibo zehazten dira. Laugarren artikuluan enpresa bat deslokalizatutzat jotzeko beharrezkoak diren baldintzak zehazten dira. Bigarren kapituluak laguntza publikoaren aurrean Nafarroako Foru Komunitateko enpresek hartu beharreko konpromisoak zehazten ditu. Izan ere, laguntza publikoak jasoko dituzten enpresek deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartu beharko dute. Hurrengo apartatuan Nafarroako Gobernuak deslokalizazio kasuen deklarazioa egiteko prozedura zehazten da. 7. artikuluan arautzen da dirulaguntza publikoak jaso ondoren deslokalizazioa egin duen enpresak laguntza horiek itzultzeko duen betebeharra. Azken artikulua Nafarroako Gobernuari agintzen dio ikerlerro bat antola dezan, deslokalizazio-prozesuei buruzko ezagutza hobetze aldera.

Xedapenetan, Gobernuari ahalmena ematen zaio foru legea interpretatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren jarraibideak bideratzeko. Azkenik, foru legea indarrean sartzeko epe eta baldintzak zehazten dira.

## I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xedea da zehaztea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik eta Foru Sektore Publiko Institutuzionala osatzen duten entitateetatik laguntzak jasotzen dituzten enpresek

balizko deslokalizazio prozesuen aurrean izan beharreko betebeharrak eta mugak.

2. Lege honen bidez, bermatu nahi da enpresek artikuluko honen 1. apartatuan aipatutako entitateetatik jasotzen dituzten dirulaguntzak Nafarroaren garapenari ekarpen ekonomiko eta soziala egiteko izan daitezela, deslokalizazio prozesuei aurre egite aldera.

**2. artikulua.** Aplikazio-esparru subjektiboa.

1. Foru lege hau enpresaren egoitza zein lantokia Nafarroan izan eta Nafarroako laguntzak jaso dituzten enpresei aplikatuko zaie, hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuetan eta moduan.

2. Lege honen bidez, bermatu nahi da enpresek artikuluko honen 1. apartatuan aipatutako entitateetatik jasotzen dituzten laguntzak Nafarroaren garapenari ekarpen ekonomiko eta soziala egiteko izan daitezela, deslokalizazio prozesuei aurre egite aldera.

**3. artikulua.** Aplikazio-esparru objektiboa.

Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarengandik eta Foru Sektore Publiko Instituzionala osatzen duten entitatearengandik jasotako laguntzat jotzen dira bai dirulaguntza publikoak bai beste edozein laguntza, edozein dela ere hartzen duen forma juridikoa. Erregelamenduzko garapena egitean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zilegi izanen du foru lege honen aplikazio-esparru objektibotik halako laguntzak eta dirulaguntzak salbuestea ezen bideratuta baitaude lehiakortasuna edo jakintza-transferentzia hobetzekoak diren I+G+b jarduerak sustatzera.

**4. artikulua.** Enpresen deslokalizazioa.

1 Foru lege honen ondorioetarako, enpresa bat deslokalizatu egin dela ulertuko da, bi baldintza hauek batera gertatuz gero:

a) Enpresak Nafarroan duen jarduera bertan behera uztea edo nabarmen murriztea.

b) Aldi berean, edo hori gertatu aurreko nahiz ondorengo hiru urteetan, Nafarroan jarduera bertan behera utzi duen erakundeak berak jarduera hori Nafarroatik kanpoko beste leku batean garatzea, edo beste erakunde batek garatzea, baldin eta harekin Merkataritzaren Kodeko 42. Artikuluan aipatzen diren harremanak baditu.

2 Bigarren jarduera bertan behera geratu dela ulertuko da, bai erakundea desegiten denean eta baita, desegin ez arren, Nafarroan dituen produktio instalazio guztiak edo horietariko batzuk ixten dituen ere.

3. Jarduera nabarmen murriztu dela ulertuko da, baldin eta, erakundeak Nafarroan dituen lanpostuen murrizketaren ondorioz, murrizketaren aurretik izandako langileen kopurua erdira baino gutxiagora jaisten bada. Hori dela eta, artikuluko honen lehen atalean aipatutako baldintzak eman aurreko bi urteetan erakundeak Nafarroako lantokietan izandako langileen batz-besteko kopurua hartuko da kontuan. Deslokalizaziorik ez dagoela ulertuko da, gutxienez 25 langileri eragiten ez badie.

4 Enpresak Nafarroan egin izan duen jarduera lurralde horretatik kanpoko leku batean garatzen ari dela ulertuko da, bai kanpoko leku horretan jarduera abian jartzen bada eta baita kanpoko leku horretan lehendik zegoen enpresa-jarduera hazten bada ere, Nafarroan bertan behera utzi den edo murriztu den heinean.

5. Salbuespenez, behar bezala egiaztatutako kasuetan, enpresa-deslokalizaziorik ez dagoela ulertu ahal izango da, baldin eta baldintza horietan egokitzen den enpresak, zuzenean edo berarekin Merkataritzaren Kodeko 42. Artikuluan aipatutako harremanak dituen beste erakunde baten bitartez, Nafarroako lurralde eremuan enpresa-jarduera berriak abian jartzen baditu, eta batean galdu dituen adina lanpostu edo gehiago Nafarroako beste eremu batean sortzen baditu.

## II. KAPITULUA

### Laguntza publikoak jasotzen dituzten enpresen jabeen erantzukizunak

**5. artikulua.** Enpresaren konpromisoa.

Beharrezkoa izanen da enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa jaso dadila 3. artikuluko definitzen dituen dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen gutxieneko eta nahitaezko edukiaren osagai gisa, bai eta Foru Sektore Publiko Instituzionaleko erakundearen laguntza-emate eragiketarako formalizatzeko negozio juridikoen gutxieneko eta nahitaezko edukiaren osagai gisa ere.

**6. artikulua.** Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa.

1. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez egingen da, garapen ekonomiko eta enpresarialaren arloan eskumena duen departamentuak proposatuta.

2 Deslokalizazio deklarazioa foru lege honetako 4. artikuluan aipatutako inguruabarrak gertatu ondoko lau urteen epean abiarazi ahalko da.

3. Artikulu honetako 1. apartatuan adierazitako departamentu eskudunaren txosten baten bidez hasiko da prozedura. Txostenean justifikatuko da bete egiten direla 4. artikuluan ezarritako ingurua-barrak. Lehen instantzian eginiko txostena interesdunari jakinaraziko zaio, eta horrek hogeita hamar eguneko epea izanen du txostenak dioenaren aurrean bere alegazioak adierazi eta bere eskubideen defentsa egiteko.

5. Epe hori amaitzen denean, eskudun den departamentuaren titularrak proposamena aurkeztuko dio Gobernuari, kasua bada entitatearen enpresa-deslokalizazioko deklarazioa egiteko.

6. Prozedurari amaiera emateko, Nafarroako Gobernuak bi aukera izanen ditu, jasotako txosten eta informazioa aztertu ondoren:

a) Enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia hartzea.

b) Enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia bertan behera uztea.

Bi kasuetan, ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio.

7. Nafarroako Gobernuak amaieran emandako ebazpenean zehaztuko da enpresaren deslokalizazioa zein egunetan gertaturikotzat hartzen den. Data hori izanen da foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako kontuan hartu beharko dena.

#### **7. artikulua.** Jasotako laguntza itzultzea.

1. Enpresaren deslokalizazioa deklaratu gero, enpresak itzuli egin beharko ditu aurreko zortzi urteetan jasotako dirulaguntzak, kopuru bakoitza jaso zuenetik deklarazio horren egunera arte sortutako berandutza-korrituekin batera.

2. Deklarazio horrek, halaber, itzuli beharreko dirulaguntzen zenbatekoaren % 20ko erretegia ordaintzeko betebeharra ekarriko dio enpresari.

3. Dirulaguntzen itzulketa izapidetzeko, dirulaguntzei buruzko araudi orokorrak xedatutako aplikatuko da.

4. Nafarroako Foru Komunitateko eta Foru Sektore Publiko Instituzionala osatzen duten entitateetako administrazioak emandako dirulaguntza-izaeraz bestelakoa duten laguntzei dagokienez, Nafarroako Gobernuak erregelamenduz garatuko du itzulketa kuantifikatzeko prozedura.

**8. artikulua.** Enpresa-deslokalizazioaren fenomenoari buruzko ezagutza.

Nafarroako Gobernuak, enpresa-deslokalizazioko prozesuei buruzko ezagutza hobetearren, ikerlerro egonkor bat antolatuko du gainerako instituzioekin elkarlanean, aztertze aldera zer aurre-erapauso eman diren eta zein den egungo egoera globalizazioak toki- eta eskualde-mailetako enpresa-ehunduran dituen efektuei eta Europako eta Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-deslokalizazioko prozesuei buruzko ezagutza teorikoan eta praktikoa.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak foru lege honen garapen eta aplikaziorako behar diren erregelamenduzko xedapenak onetsiko ditu sei hilabeteko epean.

**Xedapen iragankor bakarra.** Foru lege honek indarra hartu aurretik emandako dirulaguntzen araubide iragankorra.

Foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie bera indarrean sartu aurretik emandako dirulaguntzei, baldin eta deslokalizazioa, 4. artikuluan zehaztutakoaren arabera, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera gertatzen bada eta dirulaguntza emanez geroztik zortzi urte igaro ez badira.

Foru lege honen 7.2. artikuluan ezarritako erretegia foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera ematen diren dirulaguntzei bakarrik aplikatuko zaie.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

### **Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko kontingentzia plana dela-eta Parlamentuko Mahaiak hartutako erabaki indarduna luzatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana dela-eta Parlamentuko Mahaiak hartutako erabaki indarduna luzatzea.

**2.** Erabaki honek sinatzen den unean hartuko du indarra, eta 2020ko abenduaren 21era arte iraunen du, egun hori barne. Egoera epidemiologikoaren arabera Mahaiak xedatzen ahalko du hura luzatzea, aldatzea edo bertan behera uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

### **Mahaiaren 2019ko abenduaren 16ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Bartzordeak erabaki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2020ko abenduaren 10ekoa, non eskatzen baitu 2020ko abenduaren 28an, 29an, 30ean eta 31n goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan izanik aipatu lan-astean ez dagoela aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, hauxe ERABAKI DUGU:

**1.** Mahaiaren 2019ko abenduaren 16ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea;

halatan, 2020ko abenduaren 28an, 29an, 30ean eta 31n lanaldia goizekoa izanen da, betiere zerbitzuen beharrezanek horretarako bidea ematen badute.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2019ko abenduaren 16ko erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2020ko abenduaren 28an, 29an, 30ean eta 31n, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



